

Eskuz Binakako Txapelketa Nagusiko lider dira Amaia Aldai eta Miriam Arrillaga

Dimakoak eta Usurbilekoak lehenengo bost partiduetatik lau irabazi dabez eta lehenengoak dira ligaxkako sailkapenean. Arrillagak osasun arazoengaitik partidu batzuk jokatu ezin izan dauzan arren, atzen partidu biak eroso irabazi dauz bikoteak, 22-10 Etxegarai-Capellanen kontra eta 22-14 Zabaleta-Bertizen aurka. **14. orrialdea**



Burdinoletako gabi hotsa Diman (1440-1875)



Abel Ariznabarreta etnologo eta historialari dimoztarrak Dimako burdinolen eta honeen jaube ziran familien historia batu dau liburu baten. Aurkezpena martiaren 6an egingo da, baina aurretik, industria haren gaineko pasadizo batzuk azaleratu dauz BEGITURI eskainitako alkarriketan. **10., 11. eta 12. orrialdeak**

Tensinoak gora egin dau Agarren

Urtilaren 29an kaleratzea espero zan baina atzenean Lemoako Udalak beste birkokatze plan baten barri emon eban. Bizilagunek entzuteak izatea eskatuten dabe eta Arratiako Sare Antiarrazistak Udalaren "guzur, mehatxu eta tratu txarrak" salatu ditu. **8. orrialdea**



IGORRE

Kiñuren kontrako epaiketea atzeratu egin da barriro

Urtilaren 27an Durangoko epaitegian egozan deituta Kiñuko asanbladakideak eta Sabadell Bankuko abogaduak. Epaileak, negoziaketakaz amaituteko beste 60 egun emon ebazan eta akordiorik lortu ezean, barriro ipiniko da martxan prozesu judiziala. **7. orrialdea**

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Aratusteak hilaren 13 eta 17 bitartean ospatuko dira

Herri guztietan egingo dira jarduerak baina Artean zein Diman, antxinako ohiturak berreskuratuko dira Kokomarro eta Txuxoaren jantzeagaz. Barikuan umeentzako ekintzak izango dira nagusi eta zapatuan, bazkari eta jaiak. Martitzen karnabala Arantzazu eta Bedian ospatuko da. **6. orrialdea**

ARRATIA

Agate Deuna bezpera eta osteko kantaldiak

Zezeilaren 4an, Agate Deuna bezperan, koru, talde eta auzotarrak santa eskean ibiliko dira Arratia, Ubide eta Zeberioko herrigune eta auzoetatik. Arratiako Koruak 75garrenez egingo dau bere biera Bizkaitik eta hilaren 7an, Zeanurin, mezea eta koplak entzungo dira Ipiñaburuko Santa Agedan. **6. orrialdea**



Literatura txokoa

BARAZKIJALEA

Hiru istoriok osotzen dabe Hego Koreako Han Kang idazlearen eleberria, hau da, *Barazkijalea*, *Orban mongolikoa* eta *Zuhaitzak garretan* narrazioek. Protagonis-tea dan Yeonghye-ren senarrak, koinatuak eta ahiztak kontatuak. Personaia honeek aukeratutako pasarteei esker protagonistearen patua ezetuko dogu. Izan be, Yeonghye-ren adierazpenak eskasak doguz eta ametsak dira personaiaren isiltasuna apurtzen daben bakarrak.

Liburuaren izenburuak ustez adierazoten dauanaren kontra, liburuak begetarianismoaz, filo-sofiaz eta jateko eraz berba gitxi egiten dau. Atzen baten, baraz-kijale bihurtzea atxakia bat da kaosa sortzeako. Bada, erabagi

hori dala-ta personaia nagusiak ondorio batzuk sufriduko dauz, eta familiarengandik eta jente-artetik urrunduko da, inguruko horreek guztiek zorotzat hartzean dabelako.

Liburu hau idazteko *The fruits of My Woman* ipuina erreferen-tziatzat hartu eban, idazle berak urte batzuk lehenago idatzitakoa, non desioaz, lotsaz eta enpatiaz berba egiten eban. Eleberri ho-netan atzera be horretaz berba egiten dau Han Kang-ek.

Han Kang-ek hainbat liburu idatzi dauz baina, halanda be, liburu honek ospe handia ekarri deutso hegokorear idazle honeri, eta, horregaitik, hizkuntza asko-tara itzuli izan da. *Barazkijalea* eleberria oin arte euskeratu izan

dan bakarra daukagu. Idazleak sari ugari irabazi izan dauz, bai bere sorterrian, bai nazinoartean; besteak beste Literaturako Nobel Saria 2024. urtean.

Eleberria erraz irakurten da, hizkuntza erraza erabiltzen daua-lako. Lanak, baina, Kafkaren *Me-tamorfosi* lanaren zantzu asko daukaz nire ustez. Yeonghye be bere ingurutik gero eta gehiago bakartuta egongo da eta gizartearen bortizkeria gero eta ageriago geldituko da.



Han Kang
Itzulpena: Gema L. Las Heras

Barazkijalea

Elkar, 2025

204 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Zezeilaren 2tik 8ra
Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154
22:00etatik 09:00etara
Gutierrez (31-6). Amorebieta-Etxano.
Zezeilaren 9tik 15era
Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048
22:00etatik 09:00etara
Ruiz Golvano (7-13). Amorebieta-Etxano.
Zezeilaren 16tik 22ra
Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154
22:00etatik 09:00etara
Goiria Montoya (14-20). Amorebieta-Etxano.
Zeberioak ez dau guardianik egiten.
Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara
Cometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.
Tel.: 94 449 05 87

Medikuak
Arantzazu, Artea, Areatza, Dima, Igorre eta Zeanuri: 94 600 74 63
Bedia eta Lemoa: 94 600 68 85
Ubide: 945 45 50 17

Zeberio: 94 500 67 95
Udaletxeak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 05
Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubide: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen Mankomunitatea 94 631 17 17
mankomunitatea@arratia.eus
Gorbeialde Landa Garapenerako Elkartea
94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*
Gertu bulegoa Igorre 94 406 80 00
Areatzako Parketxea 94 673 92 79
Igorreko Kultur Etxea 94 673 62 51
kulturetxea@igorre.net
Lemoako Kotxepin Kultur Etxea
kotxepin@lemoa.eus
Euskotren 94 433 33 33 / *euskotren.eus*
Areatzako Notariotza 94 673 92 26
Errota Fundazioa 688 854 543
info@errota.eus
Arratiako Musika Eskola
94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eu*

Bizkaibus 94 612 55 55
3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri
Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.
Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Atzen zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.
3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino. Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.
Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro.
3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar
Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro. Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20ra orduro. Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.
3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide
Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi orduik behin.
Ubidetik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi orduik behin. Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi orduik behin.
* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.
Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.
3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzunik.
Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzunik.
3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao
Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.
*Basauriraino bakarrik.
Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.
*Artearaino bakarrik.
Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.
Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.
Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.
Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.
Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.
Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.
Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.
La Union 94 427 11 11
A3712 linea. Bilbo-Gasteiz
Lanegunetan: 06:45ean eta 08:45ean urteten dau Bilbotik. Zapatuetan: 08:45ean urteten dau. Jaiegunetan: 10:30ean urteten dau.
A3712 linea. Gasteiz-Bilbo
Lanegunetan: 15:15ean eta 16:15ean urteten dau Gasteizetik. Zapatuetan: 16:30ean urteten dau. Jaiegunetan: 16:30ean urteten dau.
Eskualdeko garraioa. Erreserbak 945 18 20 60
6A linea. Otxandio-Legutio
Lanegunetan: Ubiden 06:35ean, 07:15ean, 09:20an, 11:20an, 14:45ean, 15:25ean, 17:15ean eta 20:25ean. Astegoen eta jaiegunetan: 08:45ean, 11:55ean, 16:40an eta 18:40an.
6A linea. Legutio-Otxandio
Lanegunetan: Ubiden 09:05ean, 11:05ean, 14:30ean, 15:10ean, 17:00etan, 20:10ean eta 21:15ean. Astegoen eta jaiegunetan: 10:35ean, 13:40an, 18:25ean eta 21:30ean.
Lotura Gasteiz-Durango 18 lineagaz.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** *begitu@begitu.eus*. **Webgunea:** *www.begitu.eus*. **Zuzendaria eta kudeatzailea:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** *inigoirua@begitu.eus*. **Erredakzino burua:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** *asierabrisketa@begitu.eus*. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Ager Barragan. **Webgunearen arduraduna:** Ager Barragan. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** *begitu@begitu.eus*. **Maketazinoa:** Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresea (Dima), Mikel Madrazo (Igorre), Ibai Zarrabeitia (Arantzazu, Areatza eta Artea) Alejandro Konadio (Bedia eta Lemoa), Irati Urien (Ubide), Kepa Artaraz (Zeanuri) eta Mikel Lazaro (Zeberio). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria, **Instagram:** @begitu.eus, **Mastodon:** @begitu, **X:** @BegituEus **YouTube:** @BegituAldizkaria

Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkarteenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daiteke, beti be iturria aitatz eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatzeke.

Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derriгорrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

ALKARREGAZ



Zeberioko Gazte Elkartea

Pandemiak herri txikietan eragina euki ebala ukatuezina da, eta Zeberio ez zan gitxiago izan. Halanda be, alde on bat topau geuntsan: herriko gazteak batu eta antolatuten hasi ginan.

Alarma egoerea amaitu zanean, herriko jaietan hutsune bat egongo zala barruntatu genduan: Etixerat-eko txosnea. Ordura arte, txosna bi egoten ziran. 2022ko urri lehenengoan Guraso Elkarteko txosna bakarrik egongo zala ikusita, gure txosna propioa ipintea ebatzi genduan. Alkartea, lehenagotik egoan Zeberioko Gazte Asanbladako kide batzuketaz eta herriko beste gazteakaz osotu zan.

Hortik aurrera, modu aktibo eta antolatuan herrian jai eta euskera giroan ekintzak, urtekerak eta abar antolatuten hasi ginan: Futbolin Txapelketea, Debalde Azokea, sagardotegiko urtekerea, Gazte Eguna... danon parte hartzea bultzatuz eta herriari bizitasuna emonaz. Jakina, herrian antolatuten diran beste ekintzetan be era aktiboan parte hartzean dogu.

Hemendik, oindino alkartearen parte ez diran Zeberioko gazteei dei egin gura deutsegu, proiektu honen parte izatera, baita ekintzetan parte hartzera be!

ERETXIA

No estas loca
feminismoaren
alde, Gora
Burruka
Feministea!

Barruak astintzeko moduko dokumentala, negarrari eutsi ezinik andren eta umeen, batez be umeen, testigantza eta sentimentuen adierazpenak entzutean. Makinatxo bat emakume euren bikotekideak gutxietsiak, mespretxatuak, kolpatuak. Eta irensten gatxena dana, andra horreen seme-alabak kolpatuak, erasotuak, heriotzeraino sarritan; norbere seme-alabak erasotu, kendu, lapurtu, amari min egiteko. Barruak astindu euskuzan aretoa ia bete genduan andra eta gizonei. Halako dokumentu gehiago egin beharko geunkez errealdadearen krudeltasunaz ohartuteko, bizitzearen erosotasunetik atera eta kontura arazoteko egoera batzuk zein krudelak diran, andra askoren bizitzak ezin bizitekoak dirala... eta indarra ateraten dabe jagi eta aurrera egiteko, bizitza dagoan bitartean esperantzea dagoalako. Ondo egina!

Eskerririk asko lruene gure aurrera ekartearren dokumental hau. Ikusi eta entzun genduzan hamaikatxo biktimaren adierazpenak... eta ilundu zan pantailea eta isildu zan aretoa. Pentsamentuen zurrumbiloan argiren bat bilatu guran, han hasi ginan bata eta bestea bere kontu, bizipen, galde-erantzun, adierazpen, historia eta kritikak esaten. Andra-gizon asko gengoan eta berandu be egin zan. Gaia sakona da eta merezidu dau gehiago sakontzea, sentidu genduna; sentidu, sinistu eta pentsetan doguna.

Andren kontrako bortizkeria mundu osoan emoten da, jente-arte maila danatan. Zein da guk, entzule, ikusle, jenteak esan beharrekoa, zer erantzun



ERROSE
AURREKOETXEA
GURTUBAI
Militante feministea

herritarrak asmatu dauzalako: jentea, persona naturaren barruan, erraza bakarra, persona danak eta eskubide guztiak, bardintasuna deitzean dabe; edo hobeto esan, danok desbardinak eskubide guztiakaz.

Eta feminismora batzean gara. Horregaitik oihukatuten dogu “Gora Burruka Feministea!”. Eta pankartak eta bandera moreak edo lilak ateraten doguz kalera. Eta, “bat erasotuz gero danok erasotuta” sentiduten garalako batzean gara sarraskiari aurre egitera. Eta erasoen salaketarik balego, “nik sinisten deusut”, irrintzi batean alkartzen gara, biktimearen ondoan gagozalako, guk sinisten deusagulako. Eta batu, alkartu, saretu beharraz ohartu gara, ikasi dogulako aldaketea ez dala berez etorriko, guk geuk eragin behar dogula beste jente-arte bat, guk geuk eragiten dogula, erasotzailerik ez dogula onartuko gurean.

Eguneroko jarreran izan behar dogu feminista, bai horixe! Eguneroko portaeretan behar dogu eraso matxistei erantzun, urtean egun bitan bakarrik ez. Baina egun bi horreetan be kaleak hartuko doguz, oindino asko dagoalako egiteko, oindino hamaikatxo aldaketa sorrarazo behar doguzalako. Eta administrazinotik zabaldu egin behar dira ekintzok, jentearengana ahalik eta gehien heldu gaitezan. Matxismoari aurre egiten deusagula erakusten dabezan ekintzak indartu egin behar ditu administrazinoak, trabak ipini beharrean. Pankartea kendu edo “hor ez ipini”, hemen ezin zarie alkartu, “etxe barrukoak ezin dira kalean salatu” esan edo pentseta, pelikula hori ezin da emon, jentea herrian geldituteko deialdi paraleloa geuk egin, kartel feministak garaiz ez zabaldu edota arin kendu... Holan jokateak burruka feministea hutsaldu egiten dau. Ez daigun feminismoa gutxietsi, ez daiguzan ekintza feministak banalizau. Gora Burruka Feministea!



LUMATUTEN



CLARA LUJA

Konfiantza handiz

Pasadizo bat: oin dala urte batzuk, larralde batetik auto buelta bat emoten ibili nintzan lagun bategaz. Horrelako biribil zu-riak ikusi nebazan eta ni uriko neska izanda, nire lagunari galdetu neutsan: “Horreek zer dira?”. Eta berak erantzun eban, zalantza barik: “Trakto-reen arrautzak dira”. Nik onar-tu neban erantzuna, bera hain seguru egoan, hainbesteko konfiantzegaz esan eban...

Baina bi-hiru segundo ge-roago pentsau neban, itxaron momentu bat... zelan izango dabez traktoreek arrautzak? Noski, txantxa bat zan eta nire lagunak irribarretsu begiratu eustan, edozer sinisten neba-naren sensazioagaz. Norbai-tek esaten dauanean zeozer segurtasunagaz, guk “aja” esa-ten dogu eta jarraituten dogu gure bizitzeagaz.

Beste pasadizo bat: oin dala gitxi Parisera joan nintzan tre-

nez beste persona bategaz. Bidaia baino lehen, bat-batean dei bat jaso neban esanez bi-daia aldatu euskuela eta oin, bost ordu izan orde, 24 ordu izango zirala. Nik: “Hori ez da posible”. Berak: “Bai, bai begiratu interneten”. Dirudie-nez, Googleren laburpentxoia “nahastu” zan eta informazio okerra emon eban.

Ez, ez da txantxa. Baina ge-zurra bai.

Internetek gero eta gezur gehiago esaten ditu, dagoen informazio guztiagaz “bati-burrillo” bat egiten dauhalako eta ondorioak ateraten dauza-lako. Baina, persona ez danez, ondorio traketsak ateraten ditu batzutan eta ondorio ho-rreek munduko segurtasun guztiagaz plazaratzen dauz. Bai, bai, bidaia 24 ordu dira. Eta trenbideen webgune es-pezifikora ez bazoaz, 24 ordu dirala sinistu ahal dozu.

Ez dakit adimen artifiziaia dan, itzultzaile neuronalak edo zer, baina oin “oferta” ez da eskaintza supermerkatuetan, aukera da (itzulpen literala gaz-teleratik) eta eurek ziur ziur es-ango deusue, bai, bai, begiratu interneten, han ipinten dau.

Baina interneten dagoen guztia ez da egia; gero eta ko-rapilatuago dago dana eta si-nisten jarraitzen badogu ezer zalantzatan ipini barik, amaitu ahal deusagu nonorri, seriota-sun osoz, lasto poltsa horreek traktoreen arrautz batzuk dira-la esaten.

ZERTZEAN



SAIOA LARREA



BEGI TXINDORRA

Urtero lez, Aratusteen aurreko domekan Kanporamartxo ospatuko da gurean, zezeilaren 8an. Antxina, etxean txar-ria hil eta txorizo, urdai eta bestelango txarrikiak egin eta sikatu ostean, honeek dastatuteko eguna zan. Familian edo kuadrillan basora joan, sua isiotu eta txitxiburduntzia egiten zan, jakina, ardaoagaz lagunduta. Gaur egun, etxeko txarribodak ez dira ohikoak -ez legalak- eta herri batzutan, Areatzan, Artean eta Bedian esaterako, herri mailan antolatuten da Kanporamartxo. Halanda be, egongo dira txitxiburduntzia egitera urtengo diran familia eta kuadrillak be.

Izan be, badago plan hoberik? Hotzak jarraitu baina egunak luzatuten dabizan honetan, gureakaz batuta gorputza berotute-ko sua isiotu eta barrunbeak berotuteko txorizoa eta urdaia jan. Ez dau ardura herri bakotxean zelan deitu (txitxiburduntzi, kan-poramartxo, sasimartxo, kanpamartxo, sasikoipetsu, basatoste, basaratoste, sarteneko...), inportantea zera da: gureakaz batu eta egun hotzak berotu.





Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com



★ BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17	Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24	Golder 666 58 20 06

Pozuetza poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com



Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bidaia
T. 94 631 50 39
Itxasgata Zerbaita 901
R.P.S. 31/06



Milioi eta erdiko aurrekontua izango dau Arteako Udalak

EH Bilduren ezezkoagaz, 1.580.374 euroko aurrekontua onartu zan abenduaren 22an, pasau dan urtean baino % 2,5 gehiago. Ailarak martiaren 23an zabalduko da, inaugurazino instituzionalagaz.



Asier Abrisketa

Arteako Udalak badauka onartuta 2026rako Udal Aurrekontua; 1.580.374 euro kudeatuko dira. Udal Gobernuaren erabakia da, aurrekontuek arteaztarren "eguneroko bizitzea hobetuteko helburua daukie". Holan, udal zerbitzuak zein azpiegiturak, "mantenidu eta ahal dan neurrian hobetuko" dirala azpimarratu dabe. Horrezaz gainera, Hiri Antolamentuko Plan Orokor (HAPO) barriari ekingo jako aurten eta urtean zehar, plazea handituteko proiektuaren ezaugarriak jarraituko da. EH Bildu barriz, ez da aurrekontuak azaldu: "Guk egiten doguzan proposamenen aurrean adierazoten dabe ados dagozala eta gure ekarpenak kontuan hartu dabezala; halanda be, onarpen hori berbetan geratuten da sarritan".

EAJtik azaldu dabe, aurtengorako ez dagoala proiektu barririk baina bai amaituteko dagozanak. Holan, Ailarak (lehengo Ekomuseoa) martxan ipinteko 18.000 euroko partidea dago eta martiaren 23an egingo da honen inaugurazino instituzionala. Taberna barriz, beranduago zabalduko da. Herri sarrerako zubia asfaltetako 45.000 euro eta Medikuetxe komuna egiteko 12.000 euro be badagoz batuta aurrekontuan. Horrezaz gainera, Gorka

Beitia zinegotziak ikastaro eta ludotekarako dagozan 90.000 euroak azpimarratu dauz: "Herriko jentearentzako ikastaro, eta ume zein gazteen ekintzetarako dira, herriaren onurarako".

EH Bilduren ezezkoa

Ezetz bozkatuteko arrazoi nagusia, EH Bilduk azaldu dauanez, Ailarak-en zentralidadea izan da: "Hasikeratik izan ditu gabezia handiak". Salatu dabe bai hasikerako prozesuan, bai lur hartze eta bideragarritasun planean, bai aurrera begirako planifikazino eredu ahulean egon dirala gabeziak. EAJtik oposizioaren ekarpenen "95ean aurrekontuan sartuta" dagozala azaldu dauan arren, EH Bilduk ez dau hau onartu. BEGITU azaldu dabenez EH Bilduk proposatutako auzoentzako saneamentu plana (15.000 euro) izan da "onartu dan proposamen bakarra". Gainerako proposamenei jagokenez, kontuan hartuko dirala izan da Udal Gobernutik jasotako erantzuna: "Formalki onarpena adierazo badabe be, zalantza handiak daukaguz benetan praktikan ipiniko diran ala ez". Oposizioaren beste proposamenen artean dagoz Kultur Etxeko liburutegi, ikasgela eta txikigunea hobetuteko 7.000 euro eta "ondarea indartuteko asmoz", garbiketa barriztu eta ikuspegi feministea daukan ibilbide bat planifiketako proiektua egiteko 8.000 euro.



Gerra Zibileko gozpuzkinak topau dira

Jakin badakigu gure mendiak puntu estrategikoak izan zirala Gerra Zibilean eta gudariak hainbat bataila sufridu ebezala bertan. Bataila horreetan, hainbat eta hainbat gudarik euren bizia emon eben etsaiei aurre egiteko eta horren ondorioz, gaur egun be oindino aurkituten dira guda horreetan jausi ziranen objektu eta gorpuzkinak.

Ager Barragan

Aranzadi Zientzia Elkarteko Eneko Madariagak adierazo eban moduan, Zeanuriko mendietako zonalde horretatik zehar, gudariak gorago egon ziran lubakietatik iges egiten eben eta horregaitik, gaur egun be buruketan egondako persona horreen objektu eta gorpuzkinak aurkitutea oso ohikoa izaten da.

Gerra Zibileko dokumentuei esker, Aranzadik badaki gitxi gorabehera zein zonaldean bilatu behar diran errastuak eta dokumentu horreei esker, 2023ko bilaketa egun baten, gizakienak diran lehen hazurrak eta persona horrek denpora haretan eroiazan objektu batzuk aurkitu ebazan Madariagak berak.

Fosa bat aurkituten dan lekuan eta inguruetan beste fosa gehiago



topetea normala izaten dala adierazo eutsan Madariagak BEGITU eta horren harira, 2025eko udabarriko beste lanegun baten, lehengo gorpuzkinak agertu ziran lekutik 50 metrora, Gerra Zibilaren sasoiko txanponak eta Milicias Socialistas de Euzkadiko insignia gorri bat aurkitu ziran. Horren ondorioz egindako zonalde horren lanketa zehatzagoan, beste per-

sona baten gorpuzkinak aurkitu ebezan Aranzadiko kideek.

Antropologoek aurkikuntzea egin, argazkiak atera, fosa babestu, dokumentazino lana egin eta baimen burokratiko guztiak lortu ostean, aurtengo urtailaren 17an, Paco Etxeberria forenseagaz batera, hazur horreen deshilobiratzea egin eban Aranzadi Zientzia Elkartek.



Coca-Colaren inperioaren gaineko dokumentala Eguzkiolan

Dokumentala ikusteaz gainera, Palestine Cola-ren salmentea egingo da, palestinarrentzat ekarpena egiteko.

Asier Abrisketa

Zezeilaren 6an, barikua, Zeanuriko Eguzkiola alkartearen lokalean *L'affaire Coca-Cola* (2009) dokumentala proiektatuko da 19:00etatik aurrera. German Gutierrez eta Carmen Garciak ekoiztutako filmak Coca-Colaren inperioak Colombia, Guatemala eta Turkia moduko herrialdeetan langileen eskubideak eta baldintzak hobetuteko burrukan dabizan sindikalisten kontrako bahiketa, tortura eta erailketa kasuak aztertuten ditu. Horrezaz gainera, Palestine Cola dastatu eta erosteko aukerea be egongo da. 21:00etan afaria eta gero, "kantaldi antifaxistea" be egingo dabe bertaratutakoek.

Proiektatuko dan dokumentalak Daniel Kovalik eta Terry

Collingsworth abogaduen eta Ray Rogers militante eta Stop Killer Coke kanpainearen zuzendariaren lanaren jarraipena egiten dau. Izan be, The Coca-Cola Company salatua izan da, barbarako, Colombia, Guatemala eta Turkian sindikalistak jazarri, bahitu, torturatu eta erailteagaitik. Holan, enpresak



kasu horreen ardurea hartzeako burruka juridikoa abiatu eben abogadu eta militanteak.

Palestine Cola dastaketea eta erosketea

Hilaren 6ko dokumental proiektazino eta afarian Palestine Cola dastatuteko aukerea egongo da. Eguzkiolan, aurretik be zabalik dago Palestine Colaren eskaria egiteko aukerea. Zezeilaren 10aren aurretik egin behar da eskaerea eta edari gaseosoa 24 latak moltsoetan erosi ahalko da, 29,90 euroko prezioan. Cola normala, azukera bako, azukera bako energetikoa (25,90 euro), limoizkoa eta laranja bako dagoz aukeran; bai eta sabore desbardinetako nahasketak. Lata bako txagaz, ekarpena egiten da Palestinarentzako.



Ohitura zahar eta barriak batera Aratusteetan



Asier Abrisketa

Zezeilaren 13tik 17ra izango dira aurtengo Inauteriak eta udalek zein alkarteek antolatutako jarduerak astegoienean eta martitzen karnabalean egingo dira. Oindino jarduera guztien barri emon ez dan arren, herri guzti-guztietan egongo dira antolatuta ekintzak. Batzuetan, antxinako ohitura zaharrak berreskuratu dira, esaterako Arteako Kokomarroak eta Dima-ko Txuxoaren jantzea. Beste batzutan, mozorro koloretsu eta modernoagoak ikusi ahal izango dira desfile eta kalejiretan.

Barikuko jarduerak, orokorrean umeentzako dagoz bideratuta, eskolan disfrazau ostean mozorro horreekaz urtengo dira-ta arrastian. Zapatuan barriz, adin guztietarako egitarau potoloagoak dagoz antolatuta: mendi urtekerea, bazkariak, mozorro eta tostada lehiaketak... Ziur goizera arte be luzatuko dala askoren jaia. Martitzen karnabala barriz, Arantzazun eta Bedian ospatuko da.

Aurretik, zezeilaren 6an, Artean Kokomarroa sortuteko tailerra egingo dabe 18:00etan Kultur Etxean.

Zezeilak 13, barikua

Artea

16:30ean, txokolatea plazan Anots Guraso Elkartearen eskutik; 18:00etan, Elexabeitin alkartu; 19:00etan, Kokomarroen kalejirea, Elexabeititik plazara. Plazan epaia irakurri, Kuberue erre eta Kokomarroen jantzea.

Bedia

18:00etan, umeen mozorro desfilea Ludotekatik plazara; 18:30etik 19:15era, Ludotekako Jaialdia.

Igorre

17:00etan, Disko Festa Lasarte plazan (euria egin ezker aterpean); 18:00etan, Arantzarte Dantza Taldearen jantzaldia. Gero, txokolatea.

Zeanuri

15:30ean, eskolako umeen jaialdia frontoian; 16:30ean, merienda Guraso Elkartearen eskutik; 17:00etan, Altxorren Bila; 18:00etan, mozorro desfilea.

Zezeilak 14, zapatua

Areatza

09:30ean, mendi urtekerea; 13:00etan, mozorro desfilea poteoan, plazatik Aldaminera; 15:00etan, baba-jana Aldaminen. Gero, Bingoa; 17:30ean, Primo Bayo musikea ipinten.

Dima

12:00etan, plazan aginte-makila herritarren esku. Ostean, Txerokiak musika talde ibiltaria; 14:30ean, bazkaria eskolan. Ostean, bingoa eta musikea plazan; 18:00etan, Txuxoaren jantzea plazan, amaituteko, plazan agurra: Txuxoa erretea.

Igorre

12:30ean, mozorro kalejiew Garbetik hasita, Merhezi taldeagaz; 15:00etan, herri bazkaria eskolako aterpean; 17:00etatik 20:00etara, erromeria Joxe Mendizabalegaz eta Mozorro Lehiaketako sari banaketea.

Lemoa

17:00etatik 20:00etara, Haurrentzako Inauteri Festa: txiki-txokoa, makillaje gunea, ule-apaindegi zoroa, txokolatea, tailerrak, jolasak eta photocall-a; 19:00etan, Mozorro Desfile Lehiaketa Musikatua. Kiroldagian.

Ubide

17:30ean, kalejirea; 18:00etan, desfilea plazan; 20:00etan, parilladea eta musikea; 20:30ean, Tostada Txapelketea.

Zezeilak 17, martitzena

Arantzazu

18:00etan, Mozorro eta Tostada Txapelketak. Herriko Tabernan.

Bedia

17:30ean, sarrera, photocall-a eta desfilerako izen-emotea; Gora kopak: bi ahots, bihotz bat antzerki, musika eta jantza ikuskizuna; 19:30ean, txokolatea.



Kopla eta makila hotsak Agate Deunaren bezperan

Zezeilaren 5a da Kataniako Agate Deuna martiriaren eguna eta bezperan, hilak 4 eguaztena, urtero lez talde ugari urtengo dira Arratia, Ubide eta Zeberion, makilea eskuan hartuta auzoz auzo eta kalez kale santa eskean.

Asier Abrisketa

Udal, eskola eta alkarteek hainbat kantaldi antolatu dabez eta hemen batu doguz deialdi nagusiak baina egongo dira eskolaume, gazte, kuadrilla, alkarte eta auzokideek osotutako hainbat talde be, Agate Deunaren bezperan gurean hain errotuta dagoan tradizino hau betetan urtengo diranak.

Protagonista nagusia Arratiako Korua izango da aurtan be, 75garrenez urtengo da-ta santa eskean, Arratian bakarrik ez, Bizkaia be kurutzatuta. Urtero lez, 07:45ean Areatzako parrokan mezea entzungo dabe Arratiako Korukoek eta kantaldiak Zeanurin abiatuko dira 08:25ean. Hortik Arantzazura (08:40), Igoerrera (09:00), Dimara (09:20), Lemoara (09:40) eta Bediara (09:55) joango dira, Arratiatik urten aurretik. Usansolon 10:15ean eta Zornotzan 10:55ean

kantaiko dabe, gero Bilbora heltzeako. Eguerdi partean Begoñako Basilikan, San Antonen, Erriberako merkaduan, Plaza Barrian, Areatzan, udaletxean, BBVAN, Bizkaiko Foru Aldundia- ren egoitzan, Carlton Hotelean, Botika Zahar institutuan eta Guggenheimen kantaiko dabe. Bazkaldu ostean barriz, Abando, Egileor Plaza, Viña, diputazinoa, Ledesma, Corte Ingles-a, Laboral Kutxa, Metro geltokia, Santos Juanes, Santiago katedraletik pasauko dira, agurra Arriaga aurrekaldean eginaz. Bueltan, Galdakaon geldialditxo egin ostean 21:10ean Artean eta 21:20an Areatzan kantaiko dabe egunari agur egiteko. Bidean batutako dirua Caritasentzat izango da.

Zezeilak 4, eguaztena. Santa

Ageda bezperea

Arantzazu

18:00etan, plazatik hasita.

Artea

16:00etan, eskolan; 16:30ean, plazan; 17:00etan, tostadak San Martinen; 18:30ean, Garain 19:00etan, txokolatea plazan.

Bedia

17:00etan, plazatik hasita kantaldia auzoz auzo.

Dima

09:00etan, eleizako koruaren kantaldia; 09:20an, Arratiako Korua; eskolako umeak be plazan egongo dira eta abestuko dabe herrian zehar.

Igorre

15:00etan, korua herrian zehar. Urbietako aparkalekutik hasita.

Lemoa

09:40an, Arratiako Korua eta J.B. Eguzkitza Meabe Ikastetxe-ko ikasleak. Udaletxe-ko plazan.

Ubide

16:30ean, plazatik hasita.

Zeanuri

Arrastian zehar talde desbardi- nen kantaldiak auzoetatik.

Santa Ageda bitxia Ipiñaburun zezeilaren 7an, zapatua

Jon Urutxurtu

Arratia aldean ondoen gorde dan ohituretako bat Santa Agedarena da. Ospetsua da Santa Ageda bezperan Arratiako Koruak 1951tik, hutsik egin barik, Arratia, Zornotza eta Bilbon zehar egiten dauan jirea. Egun horretan Arratiako herrietan be hainbat talde ibiltan dira santa eskean, auzorik auzo, etxerik etxe.

Bitxia da Zeanurin Ipiñaburuko Santa Ageda baselizan ospatzen dan jaia. Aurtan zezeilaren 7an ospatuko da—5ean ez da izango mezarik—. Bertan, hamabietako mezan, lehenago Juantxo Larrazabal (+) buru eukan Undurragako taldeagaz hasi zan ohitureari jarraipena emonaz hasiko dira: Santa siziliarraren bizitzearen gorabeherak azaltzen dabez zan hogeta hamazazpi koplak eta etxe-ko ugazaba, etxe-ko andre eta seme-alabei zuzendutako beste hogeta hamabostak abesten dabez Santa Agedaren irudiaren aurrean, makilen taupada eta ltsasne Etxebarriaren dultzainearen



doinuaz lagunduta; oin dala hiru urtera arte Ernesto Etxebarria zan dultzaineroa eta talde zaharraren ordezkari bakarra.

Meza ostean, eta jai giroan barauskarria banatuko dau aurtengo maiordomoak eta errifearen zozketea egingo da.

Santa Agedaren inguruko ohitura eta sinismenak

Arratia aldean Santa Agedaren baseliza bi topau daikaguz: bata Dimako Bikarregin eta bestea Zeanuriko Ipiñaburun.

Gaurkoan Zeanuriko ermita honen inguruan oin dala urte batzuk arte bizi izan diran sinismen eta ohiturak aitatuko doguz. Ohiturea zan Agate Deunaren bezperan iluntzetik gauerdia arte kanpaiak jotea. Gainera, inguruko jentearentzat santa honek ezaugarri sendagarriak eukazan: bularreko gaixoak osatuteko Agate Deunarengana jotan zan, eta umea eukiten eben andre-ko olio-ka eskaintzen eutsen, ointsuago kandelak eta dirua eskaintzen jakozan.

DIMA

Bosgarrenez irabazi dau Dimako txorizoak Mungiako San Antontxuko lehiaketan

Igor Zuazoren txorizoek bost txapel eta bigarren sari bat irabazi dabez zazpi urtetan.

Asier Abrisketa

Urtilaren 17an ospatu zan Mungiako Merkataria eta Ostalarien Elkartek antolatutako San Antontxu azokea eta urtero lez, Euskadiko Txorizo eta Ondolosten Lehiaketea, aurten hogeta zortzigarrenez. Dimako Zuazo Janaridendako Igor Zuazok irabazi dau txorizoen kategoriako txapela, beste behin. Zazpi urte daroaz sanantontxuetako azokara bere txorizoak aurkeztuten eta

behin kenduta, beti jaso dau saria: bost txapel eta bigarren postu bat.

Txorizoen bigarren saria Bermeoko Landabaso okelategiak irabazi eban. Arroezko odolosten mailan barriz, Orozkoko Lorea Momeñe izan zan txapeldun eta bigarren, Arantza Vazquez sopuertarra. Barazkizko odolosten mailan barriz, Gernikako Jesus Mari Harategia izan zan garaile eta bigarren, Lezamako Carniceria Isaac.



BEDIA

Gazteentzako ekintzak proposatuteko Gazte Tardeoa antolatu da

Hilaren 7an egingo da Bediako Gazte Plana lantzeako saioa.

Asier Abrisketa

Bediako Udala Gazte Plana lantzean dabil eta gazteen eretxia aurrez aurre entzuteko, Gazte Tardeoa antolatu da zezeilaren 7rako. Errekaondoko erabilera anitzeko lokal barrian eroango da aurrera 16 eta 29 urte bitarteko gazte bediaztarrentzako ekimena, 17:00etatik 19:00etara. Musikea ipinten DJ bat egongo da eta merienda be

egingo dabe hurreratutakoek. Horrezaz gainera, bakotxaren eretxiak, ideak eta proposamenak partekatuteko “giro on eta espazio seguru” bat izango da. Izena emoteko, antolatzaileek hainbat “Golden Ticket” ipini dabez herritik eta bertako QR kodea eskaneauta egin dai-teke inskripzioa edo <https://labur.eus/gaztetardeoa> estekan. Parte-hartzaile bakotxak opari bana jasoko dau.

IGORRE

Epaileak 60 egun emon dauz akordio batera heltzeako

Kiñu Gaztetxea eta Sabadell Bankua negoziatan dabizanez, bertan behera gelditu da momentuz prozesu judiziala.



Asier Abrisketa

Urtilaren 27an, Durangoko Justizia Jauregian egin zan Kiñu Gaztetxearen eta Sabadell Bankuaren arteko epaiketea, Igorreko gaztetxea indarrez hustuteko aukerea zabalik egoala. Alde biak negoziatan dabizanez, gaztetxearen parteko abogaduek prozedimentua etetea eskatu eben, akordio batera heltzeako aukerea izateko. Sabadellen abogaduek eta epaileak hau onartu eben eta

epaileak beste 60 egun emon ditu; akordiorik ez badago, barriro deituko dauz alde biak. Unai Intxausti Kiñuko asanbladakideak epaitegitik urten barri, BEGITU onartu eban: “Egia da oin arte Sabadell Bankua guk gura dogun zesino baterako ez dala oso alde agertu, baina hor gabiz tiritu gurean”.

Epaiketearen ostean Kiñuko kideek irakurritako komunikaduan azaldu eben, etenaldia “barri ona” dala eta oin, “herriaren indarra eta babesa erakus-

teko” momentua dala aldarrikatu. Holan, zezeilaren 6an Igorren 18:00etan egingo dan manifestazinora batzeako deia egin zan, bai eta gero egingo dan Erresistentzia Jaialdira. Horrezaz gainera, azaldu eben hau ez dala Kiñuren kontrako “eraso partikular” bat: “Gaztetxeak etenbarik erasotuak izaten dabiz, horregaitik gure babesa helarazo gura deutsegu arriskuan dagozan beste gaztetxe eta gune autogestionauei”.

Manifestazinoa eta Erresistentzia Jaialdia hilaren 6an

Zezeilaren 6an, Igorreko Kiñu Gaztetxea indarrez hustuteko Sabadell Bankuaren saiakeren kontrako manifestazinoa egingo da Igorren, 18:00etan Kultur Etxeko plazatik urtenda. Jentetzak gaztetxearen alde Igorre zeharkatu ostean barriz, Erresistentzia Jaialdia egingo da gaztetxean bertan. Ateak 21:00etan zabalduko dira eta Sua eta Adu-rren kontzertuak egongo dira ikusgai. Gero, jaitxoagaz segiduteko DJ Lamia Marik hartuko dau musikearen ardurea.

LEMOA

Lemoan ospatuko da Bizkaiko II. Erromeria Eguna, urrietan

Euskal musika, kanta eta jantzen jaiak erromeriazaleen uriburu bihurtuko dau Lemoa urri bigarrenaren 17an.

Asier Abrisketa

Bizkaiko Foru Aldundiaren ekimenez jaio zan 2025ean Bizkaiko Erromeria Eguna eta antolakuntzeak Durangon ospatu zan jaiaren “balorazino bikainaren” ostean, bigarrenaren 17an izango da bigarren edizinoa eta Durangalde-tik, Arratiara egingo dau saltu, Lemoara. BEGITU, ekitaldiaren laguntzaile izango da. BFAk, Lemoako Udalak eta Danok musikarien kooperatibeak aurreratu dabenez, nondik norakoen eta egitarauaren kartel nagusia uda aurretik aurkeztuko dala

jente-aurrean, Lemoan bertan.

Dakiguna da, antolatzaileek azaldu dabenez, “adin eta gustu guztientzako askotariko ekintzak” egongo dirala Lemoan; “funtsean, arpegi eta formatu guztietako erromeriak batuko dira”: kalejirak, txarangak, ber-baldiak, kale-animazinoa, taile-

rrak, umeentzako puzgarri eta ekintzak, umeentzako berbenak, jantza plazak, fanfarreak, kantu jirak, gaueko gazte taldeen bersino-taldeak... Pasau dan urtean, Durangon, hogeta hamar ekintza inguru burutu ziran egun baten, bost gunetan antolatuta.





Bi milioitik gorako aurrekontua onartu dau Dimako Udalak

EH Bilduk proposatutako 2.142.484 euroko aurrekontua onartuta dago, EAJren kontrako botoakaz.

Asier Abrisketa

Urtailaren 21ean batu ziran Dimako alkate eta zinegotziak plenoan, EH Bilduk proposatutako 2026rako Udal Aurrekontuen gainean EAJren zuzenketak aztertu eta bozkatzea amaitu teko. 2.142.484 euroko aurrekontua onartu zan, pasau dan urtean baino ia 200.000 euro gehiago. Alderdi bien arteko eztabaida handiena aurrean eregi gura dan multikirol kantxak sortu eban plenoan. 89.000 euroko inbersioa egingo da eta EAJk, hau bertan behera ixteko eskatu eben. EH Bildu defendidu zan, hau gazteen eskaera izan dala esanez. Inbersio garrantzitsuena barriz liburutegiko birmoldaketan (parte-hartze prozesu bategaz egingo dana) eta berogailu

sistemearen aldaketan egingo da, 180.000 euro. Udal Gobernutik BEGITU azaldu dabenez, gizarte gaitan zein azpiegitura eta lurralde antolamentuan egin da esfortzu gehien. Holan, gizarte mailan egindakoen artean azpimarratu dabez Bardintasun Plana aurrea eroateko zerbitzu teknikoak martxan ipintea (22.000 euro), gizarte eta kultur mobimentuko alkarte eta norbanakoei sostengua emotea (berbarako, Dimestenerako 56.000 euroak eta erakundeentzako 35.000 euro) eta herritarrei “aisia era osasuntsu baten eta kalidadez, herritik atera behar izan barik” eskaintzea (urteko jardueretarako 26.500 euro, gaztediarentzako 7.000 euro, ikastaroetarako 28.000, azokarako 15.000,

kantxarako 89.000 euro...). Azpiegitura eta lurralde antolamentu mailan be inbersio garrantzitsuak egingo dira. Multikirol kantxaz eta liburutegia eraldatu eta eraginkortasun energetikoa hobetuteko partidez gainera. Bide horretan eskolako kamanan kortina automatikoak zein arruntak ipini (19.000 euro) eta Elexaldeko isolamentua hobetuko da (4.500 euro). “Garrario publikoa lagunkoiago” egite aldera, erdiguneko geltokia mobidu eta Santurrun geltoki bat eta zebrabide bat egingo da (46.000 euro). Mazkazuiko ur hornidurarako be egingo da inbersioa (52.000 euro) eta herriko bideak konponduteko 50.000 euro aurreikusitako dira. Beste alde batetik, lehenagoko hiltegia erosteko atzen 15.000 euroak ordainduko



dira, gero espazio horren erabilere herriarrakaz adostuko dalarik. Amaituteko, larran errekeak kurutzatuteko oinezkoentzako egurrezko pasabide bat eregiko da (72.000 euro).

EAJren eskariak

Dimako jeltzaleek hiru zuzenketan nagusi egin eutsezan aurrekontu proiektuari. Lehenengo Hiri Antolamentu Plan Orokorra barriztuteko 75.000 euro eskatu ebezan eta Udal Gobernuak 1.000 euroko partidea zabaldu eban, gero dirulaguntzea eskatu ahal izateko. Baserrien katalogo bat egiteko 15.000 euro be eskatu ziran baina hau ez zan onartu. Herriko

saneamentu sarea hobetutea be lehentasun moduan ipini eben eta 102.300 euro eskatu ziran baina EH Bildutik erantzun eutsean urtean zehar balorauko dala beharizana. HAPOrako 75.000 euroak inbertidu ahal izateko, EAJk eskatu eban Dimesteneko partidako 11.000 euro eta behin behineko langileen partidea kentzea, lan hori funtzionarioak indartu daitekelakoan. Horrezaz gainera multikirol kantxakoa eta zaintzaren partidea kentzea be eskatu ebezan baina Udal Gobernuak erantzun eban 80 persona inguru dagozala atzen partida horren beharrean. Larrako zubia be URAGaz negoziatuko eskatu eben jeltzaleek.



Bildurra eta ezjakintasuna Agarreko bizilagunen artean

Urtailaren 29an tensino handia egon zan auzoan, etxeen hustutearen bildur. Udalak birkokatze plan barri bat proposatuko daua esan eban, baina Sare Antiarrazistak bortizkeria eta guzurrak salatu ditu.

Asier Abrisketa

Urtailaren 23an Lemoako Udalak adierazo eban, Cementos Lemonaren jaubetzakoak diran Agarreko pisuak okupatu daukiezan bizilagunentzako “aldi baterako birkokatze urtenbideak” topetan dabizala. Horretarako, “dispositibo integral” bat aktibatu eban Udalak. Atzen hileetan argi-etete asko egin jakiez Agarreko bizilagunei eta euren kabuz egin dabez konponketak, beste batzutan kozinetako sua egin behar izan dabe. Holan, “personentzako arrisku larria” ikusten zala argudiatuta aktibatu eban plana. Lehenengo pausua urtailaren 20an emon zan. Bertako bizilagunek BEGITU azaldu deusienez, polizia goizaldeko 02:00etan hasi zan atez ate, bizilagunen erregistro bat egin guran. Baina batzuk bildurrez

eta beste batzuk hizkuntza oztipoa zala-ta, ez ziran urten. Zerrenda horretan ez egozanak prozesutik kanpo itxiko ebazala adierazo eban Udalak eta geroa udaletxera joan badira be, Arratiako Sare Antiarrazistak (ASA) salatu eban batzuk ez ebazala kontuan hartu. Urtailaren 23an familiei opatu jakien, hiru-lau egunetan kaleratze eta birkokatze akordio bat sinatuteko eta batzuk aterpetxeetara mobidu ebezan. ASAtik baina, mehatxuak salatu ebezan: “Kasu baten gitxienez, bilobak barriro ez ikusteko mehatxua egin jakie”. Gainontzekonetzako urteera bat topetako Esther Iturrioz Lemoako alkatea eta udaletxeko gizarte langilea Agarrera bertaratu ziran urtailaren 27an, auzotarrei egoereaz informato eta baktaxarentzako plan bat egingo zala esateko, onar-

tu eta errespetetan ebenakaz. Bizilagunek eta Sare Antiarrazistak kontau dabenez, “bortizkeriaz, bizilagunen bildurra aprobetxatuz” egin eben berba. Momentua bideoz grabatu geratu zan eta bertan entzuten jakie; “falta minimo bat egiten dauanak kale putara doa”, “hemmen egoteko eskubidea irabazi egin behar dozu” eta “isildu edo joan” mehatxuakaz. Urtailaren 28an barriz, Lemoako udaltzaina 24 orduko kaleratze agindu bategaz aurkeztu zan Agarren, Udalaren eta ez epailearen aginduz; “prozesu guztiz ilegala”, ASAREN esanetan. Bitartean, auzotar gehiago joan ziran udaletxera erregistroa egitera baina guzurrak be salatu ebezan. Batetik bideo baten azaldu eban, familia batera alkarbanatutako pisu batera joatea opatu jakon baina atzenean, aterpetxe ba-



tera eroan ebezan. Tensinoak hurrengo egunean egin eban gora, Agarrerren hustutearen bildur. ASAREN deialdia jarraituta, hainbat lagun batu ziran auzoan alkartasuna adierazotera, bertan bizi ziran familia eta gazteek etxeko gauzak atera bitartean. Egun osoan zehar egon zan Ertzaintzaren presentzia bertan eta ezjakintasun handia egoan. Ertzaintzak, gertakariaren barri emoten ebilen BEGITU kazetaria be identifikatu eban. Udaletxetik Sare Antiarrazistari eguerdian esan eutsien ez zala kaleratzerik egongo eta jada hutsik dagozan etxeetan bakarrik ipiniko zizala alarmak. Pare bat ordu beranduago barriz, kontrako notizia heldu zan eta jentea barriro bertaratu zan Agarrera baina atzenean, ez zan kaleratzerik egon eta gaua bertan

pasau ahal izan eben. Udaletik jakinarazo eben, 32 pisutik 17 hutsitu zizala “borondatez”. ASAK barriz, salatu eban “bildurrez, guzurrez, mehatxuz eta tratatu txarrez beteriko” prozesua izan dala. Hurrengo egunean, hutsitutako etxebizitza horreetan alarmak eta ateetan hesiak ipini ziran eta Udalak jakinarazo eban, zerrendea osatu eta persona guztientzako birkokatze plan indibidual bat proposatuko ebala. Sare Antiarrazistak eta bizilagunek errespetuzko tratua eta epe luzerako urtenbideak bermatuteko eskatu dau, izan be, oin arteko birkokatze aukerak 15 egunekoak izan dira. Honen alde presioa egiteko, konzentrazioa deitu da zezeilaren 4rako, eguaztena, 19:00etan Lemoako udaletxe aurrean.

BEGITU

**EUSKAL
ESKOLA
PUBLIKOA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



**Kalitatezko
Hezkuntza**



euskadi.eus/hezkuntza

AURREMATRIKULA Otsailaren 2tik 13ra

eta musika (Korrikarako borondate)

17:30 Kalejira herritik zehar **18:00** Desfilea plazan **20:00** Parrillada

20:30 Tostada txapelketa

INAUTERIKOAK

Otsailak 14

**Igorreko 2026
INAUTERIAK**

ZEZEILAK 13, BARIKUA
Ludotekako umeak astean zehar bertan egindako mozorroekin kalera!

ZEZEILAK 14, ZAPATUA
12:30 Kalejira herrian zehar MERHEZI taldearekin (hasiera Garbe auzoan)

17:00 Disko Festa taldearekin Kultur Etxeko plazan*

15:00 Inauterietako HERRI BAZKARIA Eskolako aterpean **

18:00 Arantzarte, Dantza Herrikoia
Ostean Txokolatea Kultur Etxeko plazan*

Nagusia: 20€, baba-jana / makarroiak - solomoa eta postrea
Umeak: 15€, makarroiak - solomoa eta postrea

17:00-20:00 Erromeria JOXE MENDIZABAL. Tartean mozorro lehiaketako sari banaketa

* Eguraldi txarra eginez gero, ekintzak Eskolako aterpera mugituko dira.

** Txartelak HEGAZKINAN eta GAURORAN salgai.





ABEL ARIZNABARRETA

Dimako burdinolen historia batu dau Abel Ariznabarretak

“Inportantea da ia kapazak garen, gaur egungo mentalidadetik balorau beharreen, momentu horretan kokatutea. Askotan hor jausten gara, epaitu egiten dogu lehen gertatutakoa; baina goazen momentu horretan kokatuten”.

Asier Abrisketa

Abel Ariznabarreta (Dima, 1952) historialari eta etnografoak *Burdinoletako gabi-hotsa Diman (1440–1875)* liburua argitaratu dau Antzasti museoagaz batera. Lan honek, XV. eta XIX. mendeen artean dokumentautu dagozan bost burdinolen historia azaleratuten dau, bai eta honeen jaubeak ziran podere-familien historia. Indusin, Atreminen, Ibarran, Artzubin eta Ziarrustan egon ziran burdinolak eta ziurrenik beste bat be, Zamakolan. Honeen jaube izan ziran Urretxa, Urizar, Asua, Letona, Ziarrusta, Goienola, Olabarri, Bernaola, Azkarate eta Zamakola familiak eta euren ibilbidea jarraituten dau, landa-oligarkia izatetik, XIX. mendeko gerra eta Espainiako Inperioaren gainbehera izan zala-ta, burdinolak etekingarriak izan ez eta politikara saltu egin ebenera arte. Zoritxarrez, gaur egun errastu gitxi dagoz baina egindako dokumentazio lanak industria ha zelangoa zan erakutsi eta pasadizo bitxi batzuk be azaleratu dauz.

Zergaitik aukeratu dozu Dimako burdinolen gaia?
1980ko hamarkadan Diman, hasi genduan herrian ikerketa etnografiko bat burutzeko proiektu bat. Lehenengo hasi ginan galtzeako zorian egozan gaiak hartuaz, esate baterako linoa lantzeako prozesuarena eta. Gero, holan segidu genduan eta 1987an errotei buruzko lana egin genduan; lana eta erakusketea be bai. Eta erroten gaia nahiko lotuta doa burdinolakaz. Ez genduan orduan landu, baina informazio batzuk jaso bai. Gero, oin lau urte atera nebanean *Auzo bizitza Diman (1800-1936)* liburua, agertuten jatazan burdinolen inguruko dokumentuak, guzti hori artxibatu eta ordenetan joan nintzan. Ikusi neban baegoala gai bat. Ez bakarrik Dimako bost burdinolen historia idazteko modukoa, baina bai testuinguru zabalago bat hartuta.



Testuingurua zer da? Ba alde batetik espaziala; Bizkaiko burdingintzearen historia, oso-oso aberatsa. Eta Dimakoa be hor kokatuten da. Bestetik, denporazko testuingurua. Hartu dodana da 1440tik. Zergaitik urte hori? Ba bueno aurretik be burdinolak baegozan Bizkaian eta seguruenik baita Diman be. Baina urte horretan egiten dana da burdinolak araututeko egoan araudia, ohiturazkoa eta ez idatzia, idatziz jaso: Bizkaiko eta Enkarerrietako Burdinolen Forua. Ez da berez foru bat, testu artikulatu bat, baina bai egiten dauana da ordurartinoko burdinoletako alkateak deitzean ziranak araututeko erispideak jaso. Bai eta uraren erabilera, pisuak eta neurriak... Kontuan hartu behar dogu data horretatik hamabi urtera, 1452an, idazten dala Bizkaiko Foru Zaharra. Eta honek jasoten ditu, hainbat eta hainbat gauza, burdinola eta errotei buruzkoak. Arau horreek hartuta, 1440ko burdinolen forutik.

Eta zergaitik amaituten da



Badago progresino bat, nekazal giroko elite izate-tik pasetan dira burdinolen industriara eta hau behe-rantza doanean politikara



ikerketea 1875ean?
Bueno errazoa argia da. Urte hori, Bigarren Karlistaldia amaituten dan momentua da, hemengo burdinolen krisia etorri zan. Ikusten dogu, Iturrizak berak eta historialari klasikoek esaten dabe fetxa horretarako Bizkaiko burdinolak zelango egoeran egon ziran. Eta Dimakoak konkretuki, esaten da danak jausita dagozala, ez dagoz funtzionamentuan.

Produktzioa zer joan zan Bilboko industrietara?
Hor pasetan dana da Bizkaiko burdinolen krisia XIX. mende hasieran hasi zala. Bizkaiko burdinolen historiako momenturik gorenena egon zan lotuta, asko, kanpoko merkaduari; Ameriketakoari. Hau lotuta dago Espainiako gobernuak Ameriketara euki eban politikeagaz. Momentu baten, merkadu hori galtzean da. Bizkaiko burdina pribilegiadua zan, zelanbaiteko monopolioa eukan burdin hori Ameriketako merkaduan saltzeako. Hori galtzea kolpe gogorra izan zan. Kontuan har-

tu behar da be bai, XIX. mendea gatazkatsua izan zala, gerrak segiduan dagoz. Konbentzi-noaren Gerra dala, frantsesen inbasinoa dala, Karlistaldiak... Momentu gogorrak dira burdinolentzako. Alde batetik zailtasunak daukiez kanpoko merkatura urtetako baina beste alde batetik, zailtasunak daukiez mea bera be hona ekarteko. Ze klaro mea (burdin minerala) Arratiara ekarri egin behar da, hemen ez dago nahikorik burdinolak elikatuteko. Ekarri behar da Somorrostrotik, Meatzaldeatik eta alde horretatik. Lehenengo Bilbora eroan, han egozan almagarenak eta gero gurdiz ekarten zan minerala burdinolotara. Orduan klaro, gerra garaian, Karlistaldietan, horrek eten bat suposatuten dau hemengo burdinolentzako.

Gainera, Europatik datorren barrikuntza teknologikoari aurre egiteko gaitasunik ez daukie. Hemengo burdinolen jaubeek ez dabe euki barrikuntzarako joera handirik. Barrikuntzak bai, baina beti eskema zaharrean. Europan teknologikoki beste eskema batzuetan ikusten dira eta hori ez zan hemen aplikau. Faktore guzti horreek eragiten dabe XIX. mendeko beherakada edo krisialdia.

Baina gerra garaian egongo zan burdin beharra ez? Armak eta ekoizteko.

Bai bai, baina batez be, Espainiak bere inperioa -Europan eta Ameriketara- zaindu behar izan eban garaiak ziran. Barruko gerrek ez dabe horrenbesteko eskaririk. Baina Inperio hori beherantza doan neurrian eta Espainiak ez daukanean hainbeste arma eta kanoien beharrik... horrek be euki eban bere eragina.

Orokorren zelango indarra izan eben Dimako burdinolak? Beste leku batzutan baino gehiago?

Bueno hor badagoz elementu batzuk. Ura eta gero, behar da sua elikatuteko lehengaia, hau da, egurra. Ikatza egiteko egurra. Eta noski, behar dozu minerala eta gero burdinolako teknologia. Dimak badaukaz faktore oso inportanteak, aldeko faktoreak. Alde batetik, Dima zabala da, Zeanuri eta Dima izan ziran elizate historikoetatik Bizkaian zabalenak. Gero, azalera horretatik asko dira basoak. Egurra ezinbestekoa da ikatza egiteko eta horregaz burdinolak elikatuteko. Ura be oinarritzkoa da. Dima goian, ia 500-600 metrotik (Zumeltzatik) hasten da eta behean, Igorregaz bat egiten dauan lekuan errekea 100 metrotara dago. Hau da, kilometro gitxitan desnibel handia.

Inportantea da ia kapazak garen, gaur egungo mentalidadetik balorau beharrean momentu horretan kokatuteko



Abel Ariznabarreta Indusiko burdinolako errastuen aurrean.

Horrek erraztu egiten dau bere erabilerea. Horregaitik izan doguz dokumentautu daukaguzan gitxienezko bost burdinola horreek, hogeit bat errota eta argindarra sortzeako hiru zentral.

Faktore geografikoak dira baina euki dogu inizatibea be bai. Iniziatibea nondik? Ba bueno liburuaren lehenengo zatian azalduten dodana da Arratian zeintzuk ziran XIII. mendetik datozen nekazal giroko eliteko familiak. Horreek izango dira burdinolotan inbersinoa egingo dabenak, burdinolen jaubeak atzen baten.

Familia poderetsu horreek pisu handia daukie liburuan. Nondik dator aberastasun hori eta zelan buztartu eben podere ekonomiko eta politikoa?

Arratian badagoz familia batzuk XIII. eta XIV. mendetik datozenak, Zeanuri eta Diman esaterako, oso nabariak diranak. Gero, euren artean elikatu egiten dira, batez be ezkontza bitartez. Endogamia ez neuke

esango baina badaukiez euren arteko estrategiak esparru zarratu bat sortu eta euren artean elikatzeko. Maiorazgoen loturen bitartez, patrimonio hori mantenu egiten dabe beti, ez banatuteko. Holan indartu ziran. Zeintzuk dira familia horreek? Abendañotarrak Arratian aurretik datoz baina gero hasten dira, esaterako urizartarrak Diman; Urizargo torretzeko jaubeak. Horreek ezkontza bitartez lotutadagoz altzibartarrakaz, Elexabeitiakoakaz, Ugartekoakaz... Gero, beste familia inportante bat dira ziarrustatarrak. Honek be lotuta dagoz Ugarte eta Elexabeitiakoakaz. Gero Ugarte horreek lotzean dira letonatarrak... Gero urizartarrak ezkontza bitartez be lotuko dira asuatarrakaz eta urretxatarrakaz. Horreek dira Dimako bost burdinolotako jaubeak. XVIII. mende bukaerarentza eta XIX. mende hasieran. Indusiko burdinolako, bai Atremingo, bai Ibarako, bai Artzubiko eta Ziarrustakoaren jaubeak izango

dira. Artzubikoak momentu baten apur bat desbardina da, ze hor sartzean dira kanpotik datozen azkaratetarrak; erosketa bidez egingo dira burdinolagaz. Indusikoan be, familia tradizional horreetatik aparte, sartzean dira hazten dabizan beste familia batzuk: Bernaola, Olabarri, Goienola...

Esan dozun moduan, horreek gero emongo dabe saltua politikara. Noz? Ba ikusten dabenean burdinolak ez dirala etekingarriak. Ordurako kokatuten joan dira, postuak hartzean, bai herri mailan baina baita diputazioan be. Esate baterako, badaukagu Simon Bernardo Zamakola bera, eta bere anaia... Ez bakarrik hemen, Madrileko Gortean be kasu batzutan. Gero letonatarrak dagoz... diputazino buru izan ziran. Edo momentu baten, Zamakolaren biloba bat, Ingunza Zamakola, izan zan Bilboko alkate birritan. Badago progresino bat, nekazal giroko elite izatetik pasetan dira burdinolen industriara eta hau beherantza doanean, pasetan dira politikara. Liburuak erakusten dau ibilbide gorabeheratsu hori, baina lineala.

Abizen horreek sano ezagunak dira Arratian, oindino be badira burgesiaren parte?

Ez, kontzeptu hori apurtu egiten da Antxinako Erregimenaren eta Erregimen Barriaren arteko haustura horretan, XIX. mendearen hasieran, Frantziako Iraultzearen ideologia datorrenean eta. Horregaz, Bizkaian burgesia barri bat sortzean da, ez dira hainbeste landa-eremuetako eliteak. Zamakola esaterako, burgesia barri horren auka egongo da, aurrez aurre; horren adibide garbia da Zamakolada matxinadearen kasua. Burgesia barri hori ez da hainbeste elikatzen baso, etxe eta burdinolen errentetatik; baizik eta merkataritzatik. Familia batzuk politikara pasau ziran eta beste batzuk, Bilboko merkataritzara be. Gaur egungo burges familiak gehiago datoz hortik. Beste batzutan badaukie loturea besteakaz be, zamakolatarrak adibidez, momentu baten lotuko dira ybarratarrakaz. Badakigu Ybarra familia zelangoa izan dan, eta dan oindino, Bizkaian eta testuinguru zabalago baten be.

Familia horreek ez ziran burdinolotan beharren ibiliko, zelan imajinau behar dogu Dimako burdinola bateko lan-giroa?

Ez da erraza imajinetea. Esaterako, ura da funtsezko elementu bat eta udan hemengo errekek ez daukie horrenbesteko emaririk be ez. Orduan, kasu

batzutan ez eben urte osoan funtzionetan be ez. Gero, Burdinola bera normalean errentan egoten zan. Egoten zan jaube bat, baina persona bat errentamentuan eta horrek hartzean ebazan gero langileak, langile espezializau batzuk; bat, bi, hiru... Gero beste kontu bat da zenbat jentek egiten eban lan burdinolarako. Esate baterako karreteruak edo basoan ikatza egiten egoten ziranak. Ikazgintzea Diman, momentu hareetan eta geroago be, izan da oso lanbide arrunta. Kasu batzutan burdinola bera bi personari errentauta be egon zan eta alkarbanatu egiten eben, egun batzuk batek eta beste egun batzuk besteak.

Kontuan hartu behar da be jaube honeek ez zirala bakarrik burdinolen jaubeak. 1810ean badago txosten bat, esaten dauana zeintzuk diran Dimak daukazan aberastasunak, bai herri mailakoak bai partikularrak. Agertuten diran burdinolen jaubeak baina horreek badira be pilo bat etxeren jaube, basoenak, korta-basoenak... Errenta asko hartzean dabez, ez bakarrik burdinoletatik.

Langileen inguruko hainbeste informaziorik ez dago ezta?

Ba begira errola batzuk egiten diranak, XIX. mendean hasten dira zentsu demografikoagoak egiten, eta politikoak batzuetan. Eta badago bat, uste dot 1825ekoa dala, oso zehatza. Hor esaten da ze jente bizi zan Diman, banan-banan, izen-abizenak, adinak, Diman zenbat denpora daroen, ze ogibide eta abar. Hor agertuten dira batzuk, burdinoletako langile espezializau moduan. Ez dira urrunekoak, kasu batzutan dira Arratiakoak, Zeberioakoak, Mañariakoak, Durangokoak... atzen baten mugakideak diranak. Kanpotik etorritakoak be badagoz baina ofizio oso konkretue-takoak. Baina ingurukoak dira gehienak. Burdinola barruan lanean jente asko ez zan egoten be ez, gehiago zan kanpoan. Garraioan adibidez, Bilbotik hona minerala gurdiagaz ekarteko, basoetako ikazgintza eta hau burdinoletara bajatutea... horrek eskatuten eban lanean jente asko eukitea.

Gero, kontuan hartu behar dogu, hemen burdina egiten zala baina hau landu barik esportetako, “*en bruto*”. Oso gitxi lantzean zan, Diman esaterako oso errementari gitxi egon zan. Bakarrik batzuk, hemengo baserrietako beharrizanei erantzuteko, gurdien uztaiak edo lanabesak egiteko. Baina gehiena esportau egiten zan, ez bakarrik

Dimak e, Bizkaiak be. Otxandiok esaterako bai, errementariak euki ditu oso inportanteak. Gaur egunera arte, horregaitik dauaka sinbolo moduan Vulcano; Legution eta Ubiden be egon ziran. Baina Dimak ez, su-tegi gitxi izan ditu.

Burdinola horreetatik, gaur egun ze errastu ikusi daitezke? Egin da indusketa arkeologikorik?

Zoritxarrez ez da askorik gertututen. Badakigu non egon ziran eta batzuk, geroago errota moduan erabili izan dira; hori argi ikusten da esaterako Ibarraoan edo Artzubikoan. Artzubikoan ikusi besterik ez dago zelango anteparak eta dagozan, ikusten da ez dirala errota normal bantentzako egindakoak. Estruktura aldetik kriston potentzia dauka, hor egon zan burdinola oso inportantea. Zoritxarrez, lehenengo Karlistadan hori erabili zan polbora fabrika moduan eta lehertu eta suak hartu eban. Ia ia ez zan errekuerau, ze badagoz dokumentuak 1840ko hamarkadoak oindino erreklamazinoak eskatuten. Baina klaro nori? Ze hori gerran izan zan eta klaro hurrengo diputazinoak esaten eban: “Hori joan zoan!”. Gero ez eban bururik altxau... Esate baterako, Madozen Hitzegi famauan (1845-1850) esaten da Diman lau dagozala funtzionamentuan eta bosgarren bat geldi, suak hartu ebalako; hori da Artzubikoa. Orduan batzuen egiturea -uraren zirkuitua- errota modura berrerabili zan, baina bestela ez da ezebez gertututen.

Indusketa arkeologikoak egitea posiblea litzateke. Nik uste dot interesgarria izango zala planteetan dodan hau: “Egon zan seigarren burdinola bat?”. Nik baietz uste dot ze badago mapa bat, liburuan agertuten dana, Valladolid-en aurkitutakoa, eta hor esaten da Zamakolatik Olabarrira bitartean baegoala kaltze bat, momentu horretan lurrez estalita dagoana eta momentuan soloa zana. Horrek esan gura dau, hainbat aurretik baegoala bat, nik uste dot Zamakolan egon zala.

Zer aurkitu ahal izango zan azterketa arkeologikorik egin ezkeror?

Teknologikoki oso gaxa da gauza barriak topetea, alde batetik, aspektu teknologikoa desagertuta dagoalako eta, beste leku batzutan, hau mantenu izan dan lekuetan, egin da dagoz eta gauza barririk ez. Baina askotan arkeologian, kanpotik begirata, beti pentsetan dogu barria dan zeozeren bila goazela. Ez badozu ezer topau, orduan ez dau euki horrek eze-lango zentzurik. Baina batez be



ikuspegi etnografiko batetik, inportantea ez da horrenbeste gauza barriak topetea, baizik eta aurkituta dagoan hori be egiaztatzea hemen be holan emon dala. Ez horrenbeste aurkikuntza barriaren bila, baizik eta ikustea beste leku batzutan ikusi diran faktore soziologikoak eta, hemen be holan izan zirala. Hau da, burdinolan inguruan zelan egituratuten zan eta horrek zelango eragina izan eban gainontzeko herritarrengan.

Eta burdinolen inguruko dokumentazino lana, zelangoa izan da?

Zorionez, Bizkaian dagoan artxiboa, ia dana digitalizauta dago. Orduan, erabiliaz ikasi egiten dozu dokumentuak aurkituten. Praktikea hartzean dozunean oso eroso da lan egitea. Valladolid-ekoa be bai, baina bertara joan ezik, suertea izan behar dozu. Han tentatuten zoaz zeozer topetako, hemendik eta handik begiratu-ten. Beste kontu bat da dokumentuen egoerea eta honeek irakurteko gaitasuna, XVI. eta XVII. mendekoak batzutan oso gaxak dira irakurteko; letrea bera baina baita dokumentua-ren egoerearen arabera.

Dimak daukan txarra edo akatsa da, Dimako lehena-goko udaletxea, eleiz alboan, hainbat aldiz erre zala. Karlistaldi denporatan, 1940an be bai... Orduan dokumentazino asko galdu da, 1835 baino lehenagoko dokumentu oso gitxi daukaguz. Kasualdidez igual, beste hainbaten aitamena bat edo egiten bada Dimari buruz ba topauko dozu. Baina udal aktak esaterako, oso aberatsak izaten diranak, ez dago bape ez. Zeanurik adibidez badaukaz gehiago. Nik askotan erabilten

dot Zeanuri espilu moduan, Dima eta Zeanuri atzenean estruktura aldetik antzekoak dira: kofradien funtzionamentua, basoena, larreen hitzarmenak...

Orduan Dimako dokumentazinoa ez daukadanez ba begiratu-ten dot ia Zeanurin fetxa horreetan zer pasau zan eta orduan, pentsau ahal da Diman antzekoa izango zala. Batez be aurreko liburuan *Auzo bizitza Diman*-en erabili izan dodaz Zeanuriko dokumentu batzuk, Dimakoen faltan.

Irakurleek liburua amaitute-rakoan, ze idea barneratutea gustauko litzakizu?

Ba datuak asko dagoz, baina datuak erabili behar dira beti ilustratzeko. Liburu bi honeetan, aurrekoan zein oingoan, egin dodana izan da dokumentu originalak bere horretan ixtea; ez dodaz itzuli. Dokumentuak eta transkripzinoak dagozan moduan errespetau dodaz. Zergaitik? Ba uste dot euskeraz bakarrik irakurrita nahikoa dala baina euskeraz irakurritako horren ilustrazino moduan, dokumentuak beste zeozer emoten dauala. Eroaten zaitu zeozelan, testuinguru horretara. Inportantea da ia kapazak garen, gaur egungo mentalidadetik balorau beharrean, momentu horretan kokatutea. Askotan hor jausten gara, epaitu egiten dogu lehen gertatutakoa, gaur egungo ikuspegi eta erosotasu-netik; baina goazen momentu horretan kokatuten. Gauzea da, momentu horretako bizitza zer zan eta kasu honetan, burdinolek zelango garrantzia izan eben ikustea. Ze burdinolen inguruan, gizarte osoaren antolaketa bat dago, idea hori atera behar da, eta interesa sortu. Dokumentu bat ikusi eta esa-

tea: “Joe! Eta hau?”.

Esate baterako, burdinoletako jaubeek baeukien pribilegio bat, ikatza egiteko herri-basoetako egurra enkantean urteterakoan, lehentasuna izaten eben. Bizkaiko Foruak beti babestu dau burdinolen funtzionamentua, hori zalako momentu horretako industria eta herrietako ekonomia. Orduan, jaubeek izaten eben lehentasuna baina klaro, eroan bai, baina gero ordaindu behar zan. Hainbat urtetan pilatuten joan ziran zorrak eta zorrak. Lehen esan dodan moduan, momentu baten erre egiten da dokumentazino guztia. Erre zan, ez dakigu zelan. Udaletxetik hasten dira mobiduten eta Bizkaiko agintariengana doaz baina honeek esaten deut-sie: “Hori zuen kontua da”. Orduan nora joango dira? Zein zan momentu haretan indar morala eukana? Ba eleizea. Gaur egun eleizearen antolaketea beste bat da, baina orduan Bizkaia Calahorraren elizbarrutikoa zan. Handik emoten da idatzi bat (1741ean), Dimako eleizan sermoiaren ostean irakurteko, hainbat domekatan. Irakurtekoa da e! Esaten dau: “*Que así sean muertas y malditas las ánimas de tales personas y echadas con Judas el traidor, que está en lo profundo del infierno (...) Ellos, el pan y carne que comieran, el vino que bebieran, el vestido que vistieran, el calzado que calzaran y las camas que durmieran y las hierbas que pisaran. Vivos los sorba la tierra!*”. Hori “la ostia” da e. Halanda be, ez eben ordaindu.

Testua da izugarri aberatsa. Gaur egungo mentalidadetik persona batek hori irakurtea... Baina hortxe egon gara, hortik gatoz.



- **LAN PUBLIKOAK**
- **UR ETA SANEAMENTU SAREAK**
- **BASERRI ETA BASOKO BIDEAK**
- **PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK**



94 631 72 57



ekin@ekinsl.eus



Igorre (Bizkaia)

Urri lehenengoaren 26an korriduko da aurtengo Gorbeia Suzien

Asier Abrisketa

lasterketan izena arinago emoteko
aukerea izango dabe.

Skyrace-ko izen-emotea martiaren 1ean zabalduko da eta 22ra arte egongo da zabalik. Dorsalak baino izen-emote gehiago egotea aurreikusi denez, zozketea egingo da martiaren 26an. Gero, apirilaren 13an zabalduko da 21K-rako izen-emote orokorra, apirilaren 17ra arte. Aurten 21K lasterketan be egingo da zozketea, apirilaren 19an. Baina gazte arratiarrek, honeei lekua gordetan jakiela bermatuteko, besteek baino arinago emon ahal izango dabe izena, apirilaren 12an, hain zuzen be.



Ligaxkako lehen postuan dagoz Aldai eta Arrillaga

Asier Abrisketa

Lau t'erdikoan finala galdu ostean, Amaia Aldaik Emakume Master Cup zirkuituko Eskuz Binakako Txapelketari ekin eutsan Miriam Arillagagaz batera. Abenduan hasi zan txapelketea eta Miriam Arillagak osasun arazoak daukazala-ta hiru partidujokatu ezin izan dauzan arren -Laia Salsamendigaz jokatu ditu bi eta Irati Betegigaz bat- bide onetik doa dimoztarra, bost partidutan lau puntu eskuratuta. Holan, bikotea ligaxkako sailkapeneko buru da.

Lehenengoan, abenduaren
26an Etxebarrin, 22-18 nagusi-

tu ziran Alize Sagardui eta Nora Mendizabalen kontra. Bigarrenean, abenduaren 28an Sopelan, 22-10 irabazi eben Aizane Ibarrola eta Itxaso Erasunen kontra. Hirugarrena urtailaren 17an jokatu zan Amurrión eta Aldai eta Arriilagak 20-22 galdu eben Enara Gaminde eta Alize Sagarduiren kontra. Laugarrenean, Arrasaten garaipenaren bidera bueltatu zan Aldai Salsamendigaz, Madalen Etxegarai eta Andrea Capellanen aurka 22-10 irabazita. Atzena zezeilaren 1ean jokatu zan Durangon eta Aldai-Arriilagak 22-14 irabazi eben, Goiuri Zabaleta eta Nahia Bertizen kontra.

Frontenis txapelketea antolatu dabe Ubiden

Asier Abrisketa

Martian hasi eta sanjuanetara arte, orduan jokatuko da-ta final handia, Ubide frontenis txapelketan egongo da murgilduta. Aurretik, zezeilaren 19ra arte, egongo da Ubideko Frontenis Txapelketan izena emoteko aukerea. Izen-emotea bikoteka egingo da eta inskripzioa egiteko, 640 588 049 telefonora idatzi edo herriko tabernetako batera joan beharko da. Partiduak astegoienetan jokatuko dira Ubideko frontoian, gomazko peloteagaz 22 tantura. Esan moduan, finala Ubideko jaietan jokatuko da, sanjuanetan.



DIMEKO

HERRI ARATUSTEAK

ZEZEILAK 14ean

TXUXOAK

euskara da
gure lurra



Gure
ikastetxeak

Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoa

Eskola	Herri Eskola
JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 428 78 15 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre



2 urtatu 19ra

FUTBOLA

Andrazkoen Arratia A eta B taldeak lidertzan

Andrazkoen Arratia Ak eta Bk eta gizonezkoen Arratia Bk euren partiduak irabazi ebezan; gizonezkoen Arratia Ak eta Lemoako Harrobik ostera galdu.



Andrazkoen Arratia A taldea.

Erredakzinoa

Andrazkoen Arratia A taldeak urtailaren 31n jokatu eban Elorrio A taldearen kontra eta 2-3 irabazi eban. Arratia galtzean hasi zan partidua baina 37. minutuan Irune Egigurenek banakoa ipini eban markagailuan. Bigarren zatiko bigarren minutuan arratiarrak Olaitz Arroyoren gol bateri esker aurreratu ziran eta 72. minutuan bat eta hirukoa sartu eban Arratiak Elorriokoek euren atean sartutako gol bateri esker. Bi eta hirukoa luzapenean heldu zan. "Lehenengo zatian sufridu dogu, 1-0 galtzean joan gara, baina ba-

nakoa sartu dogunean nagusitu gara, baina kostau jaku. Bigarren zatian sano ondo egon gara eta bigarrena sartu dogu. Gero eurrei txartel gorria atera deutsie, eta horrek laguntzen dau. Luzapenean 2-3koa sartu deuskue, eta atzen minutuetan sufridutea tokau jaku" adierazo eban Nerea Beitia kapitainak partidua amaitu ostean. 15 jardunaldiren ostean 33 puntu ditu Arratia Ak eta lidertzan dago. Datorren partidua Urbietan jokatu dau Bilbao Artizarrak taldearen kontra hilaren 7an, arrastiko 18:30ean. Andrazkoen Arratia B taldeak hilaren 1ean jokatu eban Urbie-

tan eta 8-0 irabazi eban Larra-betzuko Uritarra taldearen kontra.



Andrazkoen Arratia B eta Uritarra taldeko jokalariek.

TXIRRINDULARITZEA

Gorbeia Cycling ekimena aurkeztu dabe FITUR-en

Liburuxka barria -ibilbideak, profilak, zerbitzuak eta informazino praktiko guztiagaz- *gorbeiaeuskadi.com* webgunean deskargau daiteke.

Asier Abrisketa

Gorbeia Helmuga Turistikoa aurten be egon da FITUR Nazinoarteko Turismo Azokan eta urtailaren 22an, Gorbeia Cycling

ekimena aurkeztu zan. Olatz Urkiza Gorbeialdeko Landa Garapeneko Elkarteko presidentea, Agustin Otsoa Gorbeialdeko Kuadrillako presidentea eta Ainara Hernando, txirrindularitzan

espezializautako kazetariak aurkeztu eben proposamen turistikoa. Hernando bera izan da esperientzia probetan lehena, helmugea bizikletaz zeharkatuten eta erakutsi ebanez, esperientzia integral bat da. Izan be ibilbideak buztartuteko, ostatuak, jatetxeak, bizikleten alokairua eta lurraldeko baliabideen sarea batzean dira, natura-inguruneagaz eta tokiko gastronomiagaz indartuta. Gorbeia Cycling ez da ibilbide bat, esperientzia moltso bat bai-zik. Holan, profil desbardinetarako proposamenak dagoz. Lehenengo *On Road* da, errepide-ibilbideak, mendateak eta zirkuituak buztartuten dira, Gorbeia goiz bakar baten edo egun batzutan esploretako aukereagaz. Biga-

Yara Machok, gol bi sartu ebazan 7. eta 66. minutuetan, Uxue Aurtenetxek 1, 12. minutuan, Alaitz Zelestinok 4, 30., 47., 53. eta 59. minutuetan eta Matxalen Gonzalezek sartu eban atzena 84. minutuan. Zelestino kategoriako pitxitxia da 19 golegaz. 15 jardunaldiren ostean 35 puntu ditu Arratia Bk eta lidertzan dago, bigarren sailkatuak partidu bat gitxiago jokatu dau halanda be. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau atzen postuan dagoan Ugeraga taldearen kontra hilaren 8an. 18:00etan. Gizonezkoen Arratia A taldeak urtailaren 31n jokatu eban etxetik kanpo bigarren postuan dagoan Dinamo San Juan taldearen kontra eta 1-0 galdu eban. Arratiarrek puntu bakarra lortu dabe atzen 3 jardunaldietan eta lehen sailkatu biak 5 eta 8 puntura ditu, halanda be laugarrena zortzi puntura dauka eta hirugarren postuak igotea dakar. 19 jardunaldiren ostean 36 puntu ditu Arratia Ak eta hirugarrena da sailkapenean. Datorren partidua Urbietan jokatu dau Sestao River B taldearen kontra, hilaren 7an, 16:00etan. Gizonezkoen Arratia B taldeak hilaren 1ean jokatu eban Urbietan La Merced A taldearen kontra eta 2-0 irabazi eban. Gol biak Aitor Leivak sartu ebazan, bana zati bakotxean. Atzen partidu biak irabazi ditu Arratia Bk eta oin jatsiera postuak 6 puntura ditu. 19 jardunaldiren ostean 18 puntu ditu Arratia Bk eta hamalagarren postuan dago. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau lider-tzan dagoan eta partidu bakarra galdu dauan Usansoloko Umore Ona A taldearen kontra hilaren 7an, 18:15ean. **Arratia taldeko gazteak itzel** Arratia futbol taldeko gizonezkoen gazteen Arratia A taldea igazko denporaldian mailaz igon ostean, lehen aldiz historian Gazteen Nazional mailan jokaturen dabil. Hiru urtez jarraian igon da taldea eta aurtengoan be denporaldi itzela egiten dabil. Atzen partidua urtailaren 31n jokatu eban Indartsu taldearen kontra eta 1-0 irabazi eban. 20 jardunaldiren ostean 31 puntu ditu eta laugarren postuan dago Athletic B, Real Sociedad B eta Alaves B taldeen ostean. **Lemoako Harrobi** Lemoako Harrobik hilaren 1ean jokatu eban etxetik kanpo Loiola Indautxu taldearen kontra eta 2-0 galdu eban. Etxeko golak lehen zatian heldu ziran. 19 jardunaldiren ostean 37 puntu ditu Lemoako Harrobik eta laugarren postuan dago Loiola Indautxugaz bardinduta. Datorren partidua Arlonagusian jokatu dau jatsiera postuetan dagoan Galdakao B taldearen kontra hilaren 7an, 18:00etan.

rena *Mendate enblematikoak*; bederatzi mendate, kirol erronkak eta paisaia ikusgarriak buztartuta. *MTB* esperientziak barriz, "naturareagaz konektetera eta bidezidor

eta paisaia bereziak aurkitzera" bideratuta dago eta *E-Bike*, "lurraldeaz gozatureari uko egin barik", intensidade ertain bat gurago dabenentzako.



ANTZEZLANA

Napoliko antzerkia dakar Lasarte Aretora Zurrunka konpainiak

Zezeilaren 7an, 19:00etan taularatuko da *Pulcinella Txio-Txinela*, txotxongiloak eta aktoreak buztartuten dituan antzezlan.

Asier Abrisketa

Zurrunka Teatro konpainiako Eñaut Gorbea eta Roberto Castro "Boti"-k sortutako txotxongilo obrea da *Pulcinella Txio-Txinela* eta hilaren 7an, zapatua, hau taularatuko da Igorreko Kultur Etxean, 19:00etatik aurrera. Antzezlan Napoliko (Italia) komedia tradizionaleko Pulcinella personaian dago oinarrituta. VI. mendearen geroztik, personaia horrek Napoliko herriaren espiritua ordeztuten dau, plebeioa, bizitzaren zailtasunen aurrean, irribarretsu aurrera egiten daua. Obra honetan, "Pulcinella gure sentipen eta bizipenen espilu bihurtuten da; batzutan maitasunez, batzutan bildurrez, tristuraz edo pozez beteta, baina beti bizitzan ikasi eta hazteko bizi-gogoz", dinoe Zurrunka konpainiakoek. Lau urtetik gorako ume zein helduentzako da lana.



TXAPELKETE

Tostada Txapelketea egingo da Lemoan hilaren 11n

Asier Abrisketa

Hilaren 11n, eguaztena, AEKren Arratiako Berbalagun taldeak antolatutako IV. Tostada Txapelketea egongo da jokoan Lemoan. Kotxepin aurreko futbito zelaian, 18:00etan da hitzordua eta taldeek, bertan emon ahalko dabe izena. Mahaiak eta aulkiak, antolakuntzeak ipiniko ditu baina tostadak egiteko osogaiak eta honeek kozinetako tresnak bako-txak eroan beharko ditu.

Lagun artean euskeraz
AEKren Berbalagun ekimenenean

Holan, aktore eta txotxongi-loen bitartez, Gorbea eta "Boti"-k gaurko garai eta hausnarke-tetara egokitutako baina 500 urtetik gorako tradizio baten oinarritutako ikuskizuna proposatuten dabe. "Pulcinellak bizitza biziteko daukan modu propioa partekatuko deusku; bizigogoa, askatasuna, bizitzaren zailtasun eta proben aurrean beti nekagatx eta original. Maitasuna, poderea, berekoikeria, traizinoa, bizitzea eta heriotzea moduko kontzeptuak berba gitxigaz eta ekintza askogaz transmitidutako istorioaren ardatz bihurtuten dira, umore barregarriaren, erritmo ikaragarriaren eta zuzeneko musikearen bitartez, non umeek bakarrik ez, baita helduek be, euren izate sentikor eta inuzentegaz txotxongiloen magia euren estilo eta esentzia garbienean konektatu eta gozatu ahal izango daben", dino sinopsiak.

SAN BALENDIN

San Balendin eguna Eleizondon ospatuko da, kanpaiak eskuz joz eta artea neurtuz

68 urte beteko ditu artea neurtzearen tradizioak aurt.

Jon Urutxurtu

San Balendin egunean, zezeilaren 14an zapatuan, San Balendin jaia ospatuko da Zeanuriko Eleizondo auzoan, Piedadea izenez ezetuten dan ermitearen inguruan. Aurt. artea neurtzen daben 68. urtea izango da. Gainera, kanpaiak eskuz joko dabez Pedro eta Jose Antonio Lejarza anaiek, Iñaki Lejarza Andra Mari parrokiaren azken kanpaijolearen semeek.

Egitarau apala, baina, aldi berean, bitxia antolatu dabe eleizondotarrak: kanpaiak eskuz joko dabez Lejarza anaiek, lehenengo 11:30ean eta gero 12:00etan eta gura dauanak, kanpai-jotea bertatik bertara ikusteko eta entzuteko aukerea izango dau, kanpantorrera igoz.

Mezea 12:00etan parrokian ospatuko da eta ostean, San Balendinen irudia parrokiatik 50 bat metrora dagoan ermitara eroango dabe prozesinoan. Santua eleizatit ateraterakoan, herriko umeek *Agurra* jantzatuko deutsee eta ostean ermitara bidea egingo dau prozesinoak, datorren urtera arte bertan iteko.

Jarraian ermitearen aurreko artearen neurketeari ekingo deusie eta neurketearen aktea sinatu ostean, oin arteko maiordomoak —Iñaki Lejarzak—, 2026koari —Aitor Intxaurragari— agiri-liburua eta ermitearen giltzea pasauko deusaz. Iñaki Lejarza Eleizondo auzoko persona beteranoena da —92 urte ditu—, eta bera izan zan parrokiako atzen kanpai-jolea.

Ondoren barauskarria —urdaia, pamitxea eta ardaa— banatuko da Eleizondora hurre-ratzen diranen artean. Ekintza horreek herriko txistularien eta Arkaitz Estiballes bertsolariaren kantuen artean burutuko dira.

Egitarau honetan aitagarrria da oin dala hirurogeta zortzi urte eleizondotarrak hasi eben eta oin dala hogei urte —aldi baten bertan behera itxita egon ostean— berreskuratu eta ofizialtasuna emon gura izan eutsien ekintzea: Piedadeko artearen neurketea.

Artearen neurketea

Pedro Lejarza eleizondotarraren arabera, "Piedadearen aurrean dagoan artea, lehenago leku berean egoan beste baten ordezkoa da; 1958 urtean landatu eben gure aurrekoek. Hurrengo urteetan, San Balendin egunean edota San Balendin eguna ospatzen zan domekan —gonbit egunean—

batzutan bazkalostean, eta beste batzutan afalostean, jai giroan, bolanderak botaz, bertsoak abes-tuz... artea neurtu egiten eben. Neurtzeaz Gorordo baserriko Zeferino Lejarreta (+) arduratzen zan. Eta neurtu ostean, jaia amaitutzat emoten zan. Zeferinoren koadernoetan lehen urteetako neurketen zehetasunak aurkitu doguz; lehenengo neurketea 1959koa da, eta zera irakurri daiteke bertan: "*La medida de la encina de la Piedad, en los años medidos. Grueso a la altura de 1,50: 0,18*".

Tradizino hau apurka-apurka galdu egin zan eta atzen neurketea, Kandido Intxaurragak (+) egin eban 1999an; papertxo batean zera idatzi eban: "Piedadeko artea. 99-2-14. A 1,50 circunf.: 1,50".

Aurrekoek hasitako ohituea ez dabe galtzean itxi gura elei-

zondotarrak, eta Pedro Lejarzak dinoanez, "2007an neurtzen hasi ginan barriro, eta 2008an neurtzeaz gainera, agiri-liburua zabaldu genduan, bertan neurtzaileak, maiordomoak eta idazkariak sinatuz. 2008an, Piedadeko artearen neurketea hasi zanetik 50 urte beteten ziranez, ofizialtasuna emon gura izan geuntsan ohitura bitxi honeri, aurrerantzean be jarraipena izan dagian. Gainera, zugatzari neurria hartzeaz Zeferino Lejarretaren semea, Gregorio Lejarreta (+) arduratu zan 2015era arte. Gregorio 2015ean hil egin zan eta 2016an bere lekukoa Igor Intxaurragak eleizondotarrak hartu eban. Ordutik bera da neurtzailea".

Igaz arteari hartutako neurria honako hau izan zan: 194 cm-ko perimetroa 150 cm-ko altueran. Zein izango ete da aurtengo neurria?



San Balendin jaia ermitea eta artearen inguruan.



Pedro eta Jose Antonio Lejarza anaiek eskuz joko dabez kanpaiak.

Egitaraua

11:30ean eta 12:00etan, kanpaiak eskuz joko dira eta kanpantorrera igoteko aukerea egongo da. 12:00etan, mezea parrokian. Ostean, San Balendinen irudia parrokiatik Piedadeko ermitara prozesinoan eroango da. Herriko umeen Arrikibar Dantza Taldearen *Agurra* San Balendineri. Barauskarrian jango diran pamitxen bedeinkapena. 13:00etan, Piedadeko artearen neurketea. Ohitura honen 68. urtea beteko da aurt. 2026. urteko maiordomoari agiri-liburua eta ermitako giltzak pasetea. 13:15ean, barauskarria: urdaia, ardaa eta pamitxea. Herriko txistulariek eta Arkaitz Estiballes bertsolariak alaituko dabe giroa.

ZINEKLUBA

Isabel Coixet-en *La librería* zezeileko Zineklubean

Hilaren 11n egingo da saioa 20:00etan, besteak beste, hiru Goya irabazi ebazan 1950. hamarkadako Ingalaterran girotutako filmagaz.

Asier Abrisketa

Hilero lez, Igorreko Zineklubak proposamen barri bat dauka, film bat ikusi eta honen gainean solasalditxo egiteko. Zezeilaren 11n egingo da, 20:00etan, hileko saioa eta aukeratutako pelikulea *La librería* (Isabel Coixet, 2017) da. Drama hau 1950 inguruko herri txiki ingeles baten dago girotuta eta sari ugari jaso ebazan hainbat jaialditan. 2018ko Goya Sarietan berbarako, hamabi izendapen izan ebazan eta hiru irabazi: pelikula onena, zuzendaritza onena eta gidoi egokitze onena. Horrezaz gai-

nera, beste bost zinema jaialditan hamar lehen sari irabazi ebazan. Florence Green Hardboroughe-ra heldu da, 50eko hamarkadako Ingalaterrako kostaldeko herri lasai batera, berak eta bere senarrak alkar ezetu ebanean imagin-au eben ametsa betetera adoretuta: liburu-denda bat zabaltzea urruneko urigune handietan gertatzen ziran gizarte-iraultzetatik urrun egoan leku baten. Euren ilusinoek Violet Gamarten erresistentziakaz topo egingo dabe, bere idulkitik herrikideen bizitzea menperatzen dauan dama handi baten erresistentziagaz.



TELESAILA

Areatzan grabauko dan telesail baterako figurante bila dabiz

Erredakzinoa

Zezeila eta martia bitartean HBO eta EITBrentzat produzidutako telesail baten errodajea egingo dabe Areatzan, Orozkon eta inguruko beste herri batzutan. Grabaketarako figuranteak behar dabez, adin eta profil askotarikoak: nerabeak, helduak eta adinekoak. Urtaileko atzen asteetan produktorakoak Areatzako hainbat lokalizazio ikusten ibili ziran, udaletxea, kaleak, eskolea... Proiektua Smart Audiovisual agentziak kudeatuko dau, eta figuranteek sei asteko iraupena izango dauan errodajea parte hartzeako aukerea izango dabe. Lana ordaindua izango da, Artisten Hitzarmen Kolektiboaren arabera, eta Gizarte Segurantzaz alta emonda (erretiro-pensinoa-

kaz bateragarria). Parte hartu gura dabenek lan-kontraturako dokumentazioa eguneratuta izan beharko dabe, eta derrigorrezkoa izango da www.smartfiguracion.es webgunean izena emotea. Behin erregistroa eginda, mezu elektroniko bat bidali beharko da helbide honetara: serieraphael01@gmail.com.

Eskakizun berezituak

Telesailerako 25 eta 35 urte bitarteko gizonezko pelotaria behar dabe eta hilaren 13, 16 eta 17rako Areatza eta inguruteako 13 eta 15 urte bitarteko nerabe eta gazteak behar dabez. Zehaztu barik dagozan beste egun batzutarako be behar dabez gazteak. Honeek NAN zenbakia eta Segurantzaz Sozialeko zenbakia euki behar dabe parte hartu ahal izateko.



LITERATUREA

Atxagaren atzen eleberria Igorreko Literatura Tailerrean

Hilaren 16an egingo da saioa 17:00etan.

Asier Abrisketa

Igorreko Literatura Tailerreko taldea hilebete bakotzeko astelehen baten batzean da Esti Vivanco idazleagaz liburu baten gaineko lanke-tea egiteko. Oingoan aukeratutako liburua Bernardo Atxagaren *Enarak* (Pamiela, 2025) da, idazle asteasuar-rrak adierazo dauanez, bere atzen nobelea izan dana. Hilaren 16an egingo da saioa, Kultur Etxeko goiko gelan, 17:00etatik 18:30era arte. "Nobela honetako narratzaileak Arroagoia inguruko mendiak poliberdeak dirala dino. Estilo berean adierazota, bildur barik segurtatu leiteke irakurleak poliatseginez irakurriko dauala *Enarak*: suspensea aurkituko dau haren orrialdeetan, umorea, sakontasuna, lengoaiaren erabilera arina, ausardia. Urtaian da nobela honen lehenengo personaia; pintore profesional bat, atzena. Enarak be hor dagoz, etenbarik hegaz segundoko hamar metro egina", dino sinopsiak.

DUNBA

Euskal mitologia

Areatzako eskolea

Neguko oporrak bukatu eta egun batzutar, Erik izeneko mutil bat etorri jakun Jose Miguel Barandiaran fundaziotik. Jose Miguel Barandiaran (1889-1991) euskal arkeologo, antropologo eta apaiza izan zala erakutsi euskun. Berari esker, gaur egun euskal mitologiari buruzko kondairak

ezetuten doguz. Berak, persona nagusiei alkarrizketak eta galdetegiak egiten eutsezan. Gaur egun informazio oso interesgarria daukagu. Hurrengo egunean, mitoei buruzko ulermen bat egin genduan, baita mitoak gizakiak mundua hobeto ulertzeko sortutako istorioak dirala ikasi. Hor hazurrak aztertu eta antxinako bizitzari buruz ikasi genduan. Oso interesgarria iruditu jakun.

Euskal Herrian, askok jakingo dozuenez, personaje mitologikoak doguz: Mari, Sugaar, lamiak, Tartalo, Basajaun, jentilak, galtzagorriak, Zezengorri, Akerbeltz... Areatzan, badaukagu gaztetxe bat erreka baten ondoan, Laminetxe deitzean dana. Lehen animalien hiltegi bat zan. Erreka hori jarraituz Lamino deitzean dan iturri bat dago, metal ura isurtzen dauana. Lamiak joaten



Lamino iturria.



Oreinaren adarra.

omen ziran bertara ura hartzera. Horregatik deitzen da Laminetxe. Saldropo be hurbil daukagu, eta esaten da, hor dagoan erreka baten lamiak agertzen dirala. Esaten danez, zerua gorri dagoanean Anbotoko Mari, Anbototik Gorbeiaiko Supelegor kobazulora doalako da. Batez be, neguan izaten da. Eskerrik asko irakurtegitik,



Laminetxe Gaztetxea.



euskal mitologia oso dibertigarria eta interesgarria da eta gainera gurea. Animau eta mitologiari buruz gehiago aztertu!

AGENDEA

ZEZEILAK 3
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

AREATZA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero udaletxean zabalik.

19:00etan, Jai Batzordearen batzarra. Udaletxeko Pleno Aretoan.

Zezeilaren 6ra arte, kanporamartxorako izen-emotea 627 021 082 eta 676 215 397 telefonoetara idatzita.

BEDIA

Martiaren 14an izango dan Kolazino Mendi Eguneko lasterketarako izen-emotea zabalik martiaren 1era arte, *sportmaniacs.com* helbidean.

Zezeilaren 7ko 14 eta 29 urte bitartekoentzako Gazte Tardeorako izen-emotea: <https://labur.eus/gaztetardeoa>.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

IGORRE

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:30era eta eskola opor egun eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

18:00etan, *Irabazi arte!* telesailaren 5. denporaldiko lehen atalaren estreinaldia. Lasarte Aretoan.

LEMOA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

Zezeilaren 4ra arte, Elkartruke 2026 bidairako data (bagileko atzen astea edo garagarrireko lehena) bozkatuteko aukerea <https://labur.eus/Elkartruke> galdetegian. 16-18 urte bitarteko gazteen gurasoentzako.

UBIDE

08:00retatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

Dorsalak amaitu arte, maiatzaren 30ean jokatuko dan Ubidestroï Trail 2026an izen-emotea zabalik *kronoak.com* webgunean.

Zezeilaren 19ra arte, Ubideko Frontenis Txapelketan izen-emotea 640 588 049 telefonoan edo herriko tabernetan.

ZEANURI

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

Zezeilaren 10era arte, Palestine Cola erosteko eskaerea egiteko aukerea Eguzkiolan edo 665 727 881 telefonoan.

ZEBERIO

Liburutegia zabalik. Astelehen, eguen eta barikuetan 16:30etik 19:30era, martitzenetan 16:30etik 18:00etara eta eguaztenetan 17:00etatik 20:00etara.

San Blas eguna Saldarianen. 12:00etan, mezea eta ostein barauskarria.

ZEZEILAK 4
ARANTZAZU

Santa Ageda bezperako kantaldiak.

08:40ean, Arratiako Korua plazan; 18:00etan, plazatik hasita.

AREATZA

Santa Ageda bezperako kantaldiak. 07:45ean, mezea parrokian Arratiako Koruagaz; 21:20ean, Arratiako Koruaren kantaldia plazan.

ARTEA

Santa Ageda bezperako kantaldiak. 16:00etan, eskolan; 16:30ean, plazan; 17:00etan, tostadak San Martinen; 18:30ean, Garain; 19:00etan, txokolatea plazan; 21:10ean, Arratiako Korua plazan.

BEDIA

Santa Ageda bezperako kantaldiak. 09:55ean, Arratiako Korua plazan; 17:00etan, plazatik hasita kantaldia auzoz auzo.

Zezeilaren 12ra arte, *Bizitzari aurre egiten positiboki* andrentzako ikastaroan (martia-maiatza), *Collage Wellness: Guri eskaria* andrentzako tailerrean (martiak 4), *Lettering* tailerrean (zezeilak 26 eta martiak 5) eta erronkan (zezeila-garagarria), M8rako apaingarriak sortzeako tailerrean (zezeil eta martiko astelehen eta martitzenak), Zuhaitz Eguneko ekintzetan (zezeilak 28) eta Baqueirako eski urtekeran (martiak 13-15) izena emoteko aukerea Informazino gunean, 16:30etik 19:30era.

DIMA

Santa Ageda bezperako kantaldiak. 09:00etan, Eleizako Korua plazan; 09:20ean Arratiako Korua plazan; gero, eskolako umeak herrian zehar.

IGORRE

Santa Ageda bezperako kantaldiak. 09:00etan, Arratiako Korua eskoletan; 15:00etan, futbol zelaiko aparkalekutik urtenda korua herrian zehar.

LEMOA

Santa Ageda bezperako kantaldiak. 09:40ean, Arratiako Korua eta J.B. Eguzkitza Meabe Ikastetxeko ikasleak. Udaletxeko plazan.

19:00etan, elkarretaratzea: "Lemoako Udalak hainbat persona itxi dauz kale egoeran: Eskubideak Agarreko auzotarrentzako!". Udaletxean.

UBIDE

Santa Ageda bezperako kantaldiak. 16:30ean, plazatik hasita.



Joseba Olagarai eta Martxel Larraza.

Landa-eremuko LGTBIQ+ komunidadeari ikusgarritasuna emoteko erakusketea Igorren

Zezeilaren 12tik 25era arte, Igorreko Kultur Etxeko erakusketa gelak esposizino barri bat hartuko dau, *Xerka: Euskal landa-eremuko LGTBIQ+ komunitatearen istorioak eta erretratuak*. Joseba Olagarai eta Martxel Larrazak landutako erakusketa honek LGTBIQ+ personon nortasunak eta bizi-esperientziak ezetutera emon gura dauz. Horretarako Iker, Itziar, Markel, Dom eta Harrieten erretratuak eta lekukotzak batu dabez, helburu bategaz. "Euskal landa-eremuan eta euskeraz be, posible dala queer izatea eta herrian bizitea". Euren errelatoen bitartez, errealdade kolektibo bat erakusten dabe eta umezaroa, armarria, estigma, tradizioa eta diskriminazino egoerak zelan bizi izan dabezan kontetan da.

ZEANURI

Santa Ageda bezperako kantaldiak. 08:25ean, Arratiako Korua plazan; arrastian, herriko taldeak.

ZEZEILAK 5
AREATZA

19:00etan, Korrika batzordea. Udaletxean.

LEMOA

Amalurraren esnatzea. 17:00etan, txitxiburduntzia eta makilakaz lurrari abestu. Arantxeko iturria.

ZEZEILAK 6
AREATZA

18:00etan, Gaztelekuko kudeatzaile eta familien arteko bilerea. Gaztelekuan.

18:30etik 19:30era, Aratusteetako baba-janerako izen-emotea: umeak 17 euro, Lamino kideak 28 euro, besteek 32 euro. Laminoren lokalean.

19:30ean, Ludotekako kudeatzaile eta familien arteko bilerea. Ludotekan.

21:00etan, Carlos Carranza & Charlie Coshen kontzertua. The Quiet Corner tabernan.

ARTEA

18:00etan, Kokomarroa sortuteko tailerra Kultur Etxean.

IGORRE

18:00etan, Kiñu Gaztetxearen aldeko manifestazinoa. Igorreko Kultur Etxetik hasita. 21:00etan, Erresistentzia Jaialdia: Sua eta Adur taldeen kontzertuak eta DJ Lamia Mari.

ZEANURI

19:00etan, *L'affaire Coca-Cola* dokumental proiektzinoa, afari antifaxistea, kantaldi antifaxistea eta mikrofono irekia. Eguzkiolan.

ZEBERIO

18:00etan, gazteentzako iman tailerra. Plazako Ermita Zaharrean.

ZEZEILAK 7
AREATZA

18:30etik 19:30era, Aratusteetako baba-janerako izen-emotea: umeak 17 euro, Lamino kideak 28 euro, besteek 32 euro. Laminoren lokalean.

ARTEA

18:00etan, *Akelarre: marearen kontra* dokumentalaren proiektzinoa. Kultur Etxean.

BEDIA

17:00etan, 14 eta 29 urte bitartekoentzako Gazte Tardeoa: Dja, mokautxoak eta Gazte Planerako idea eta proposamenak. Errekaondoko erabilera anitzeko gelan.

IGORRE

19:00etan, *Pulcinella Txio-Txinela* antzezlan. Lasarte Aretoan.

ZEANURI

Santa Ageda ospakizuna. 12:00etan, mezea

eta Santa Ageda koplak; gero, barauskarria eta errifen zozketea. Ipiñaburuko Santa Ageda ermitan.

ZEZEILAK 8
AREATZA

Kanporamartxo. 10:00etan, mendi urtekerea Upo eta Urkidira (9km eta 450m desnibela); 11:30ean, txitxiburduntzia Upokomakatzan. Izena zezeilaren 6ra arte, 627 021 082 eta 676 215 397 telefonoetara idatzita.

ARTEA

Kanporamartxo. 09:00etan, Artea-Ermitabarri-Artea ibilbidea; 12:00etan, Elexabeitin.

BEDIA

Kanporamartxo. 09:00etatik 15:00etara, urtekerea Ganguren Mendi Taldeak antolatuta.

IGORRE

Zinea. 17:00etan, *Barrakudaren altxorra*; 19:30ean, *El extranjero*.

ZEZEILAK 9
BEDIA

Zezeilaren 26ra arte, *Esaera zaharrrak askatu* ekintzarako esakeren aurkezpena (esakerak askatuteko, kaiolea martian zabalduko da eguaztenero). Informazino gunean, 16:30etik 19:30era.

ZEZEILAK 10
UBIDE

Arratiako Udalen Mankomunitateko kamioia baztertutako gauzak jasotera. Datuak udaletxean emon zezeilaren 9ra arte.

ZEZEILAK 11
ARTEA

18:00etan, 6-9 urte bitarteko ume eta familientzako Irakurketa Kluba (izen-emotea udaletxean). Liburutegian.

IGORRE

Zinekluba. 20:00etan, *La librería* (Isabel Coixet, 2017). Lasarte Aretoan.

LEMOA

18:00etan, IV. Tostada Txapelketea. Kotxepin aurreko futbito zelaian. Berbalagunek antolatuta.

19:30etik 21:00etara, Baqueira Beret-era zezeilaren 27tik martiaren 1era eskietan joateko urtekerarako izen-emotea. Ganzabalen lokalean.

ZEZEILAK 12
ARTEA

19:00etan, Korrika batzordea. Kultur Etxean.

IGORRE

Zezeilaren 25era arte, *Xerka: Euskal landa-eremuko LGTBIQ+ komunitatearen istorioak eta erretratuak* erakusketea. Igorreko Kultur Etxean.

ZEZEILAK 13
ARTEA

Aratusteak. 16:30ean, txokolatea plazan; 18:00etan, Elexabeitin alkartu; 19:00etan, Kokomarroen kaljirea, Elexabeitik plazara. Plazan epaia irakurri, Kuberue erre eta Kokomarroen jantzea.

BEDIA

Aratusteak. 18:00etan, mozzorro desfilea Ludotekatik plazara; 18:30etik 19:15era, Ludotekako Jaialdia.

IGORRE

17:00etan, Disko Festa Lasarte plazan (euria egin ezker aterpean); 18:00etan, Arantzarte Dantza Taldearen jantzaldia; gero, txokolatea.

ZEANURI

Aratusteak. 15:30ean, eskolako umeen jaialdia frontoian; 16:30ean, meriendea Guraso Elkartearen eskutik; 17:00etan, Altxorraren Bila; 18:00etan, mozzorro desfilea.

ZEZEILAK 14
AREATZA

Lamino Eguna eta Aratusteak. 09:30ean, mendi urtekerea; 13:00etan, mozzorro desfilea poteoan, plazatik Aldaminera tabernara; 15:00etan, baba-jana Aldaminen; gero, Bingoa; 17:30ean, Primo Bayo musikea ipinten.

DIMA

Aratusteak. 12:00etan, plazan aginte-makila herritarren esku. Ostein, Txerokiak talde ibiltaria; 14:30ean, bazkaria eskolan. Ostein, bingoa eta musikea plazan; 18:00etan, Txuxoaren jantzea plazan, amaituteko, plazan agurra: Txuxoa erretea.

IGORRE

12:30ean, mozzorro kalejia Garbetik hasita, Merhezi taldeagaz; 15:00etan, herri bazkaria eskolako aterpean (nagusiek 20 euro eta umeek 15 euro); 17:00etatik 20:00etara, erromeria Joxe Mendizabalegaz eta Mozzorro Lehiaketako sari banaketea.

LEMOA

Aratusteak. 17:00etatik 20:00etara, Haurrentzako Inauteri Festa: txiki-txokoa, makillaje gunea, ule-apaindegi zoroa, txokolatea, tailerrak, jolasak eta *photocall*-a; 19:00etan, Mozzorro Desfile Lehiaketa Musikatua. Kiroldegian.

19:30ean, poteo zaratatsua (bakotxak instrumentu edo zarata egitekoak ekarri). Jubiladuen lokaletik hasita.

UBIDE

Aratusteak. 17:30ean, kalejirea; 18:00etan, desfilea plazan; 20:00etan, parrilladea eta musikea; 20:30ean, Tostada Txapelketea.

ZEANURI

San Balendin. 11:30ean, lehenengo kanpai-jotea (kanpantorrera igoteko aukerea); 12:00etan, bigarren kanpai-jotea eta mezea parrokian; gero, Arrikibar Dantza Taldeko umeen *Agurra* San Balendineri eta prozesinoa Piedadera; gero, pamitxen bedeinkapena; 13:00etan, artearen neurketea eta hurrengo maiordomoari giltz eta agiri-liburua pasetea; 13:15ean, barauskarria pamitxea, urdaia eta ardaoagaz.

ZEZEILAK 15
ARTEA

Etixeramartxo. 11:30ean, talo tailerra. Plazan.

IGORRE

Zinea. 17:00etan, *Los guardianes del diente mágico*; 19:30ean, *El sendero azul*.

ZEZEILAK 16
IGORRE

17:00etan, Literatura Tailerra: Bernardo Atxagaren *Enarak* (Pamiela, 2025).

ZEZEILAK 17
ARANTZAZU

Aratusteak. 18:00etan, Mozzorro eta Tostada Txapelketak. Herriko Tabernan.

ARTEA

11:00etan, Alabazan ipuin kontalarien *Luziaren sekretua* itzal antzerkia. Kultur Etxean.

BEDIA

Aratusteak. 17:30ean, sarrerea, *photocall*-a eta desfilerako izen-emotea; *Gora kopak: bi ahots, bihotz bat* antzerki, musika eta jantza ikuskizuna; 19:30ean, txokolatea.

KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

AUTOA KONPARTIDUTEA

Leioako campusera doazen Arratiako EHUko ikasleen bila nabil kotxea eta gastuak konpartiduteko. Telefonoa 690 307 910.

GELA BEHAR DOT ALOKAIRUAN

Pisu konpartidu baten, persona bakar batentzako gela bat behar dot alokairuan. Telefonoa: 642 912 390.

KIMIKAKO KLASEAK HARTU GURA DODAZ

Bigarren Batxilergoko kimika klaseak euskeraz jasoteko nonoren bila nabil abuztuaren hasieratik, ordutegi malguagaz, gero, klaseak urte osoan zehar izateko asmoz zapatuetan ordu biz. Deitu: 638 889 851.

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rock School. Gitarra klaseak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu 664 303 528 telefonora edo idatzi a.harillo.gracia@gmail.com helbidera.
 TABERNARI EUSKALDUNEN BILA GABIZ
 Axular Herriko Tabernan tabernari

bi behar dira astegoienetarako. Interesdunek tabernan bertan galdetu, axularke@gmail.com helbidera idatzi edo telefonoz deitu: 94 673 70 92.

BIZIKLETEA SALGAI

Umeentzat, koloretsua, Dora Esploratzailearen marrazkiekaz. Lauzpabost urteko umearentzat. Errobera txikerrak, aurrean zestillea eta atzean pelutxearentzat kutxa. Egoera eta itxura onean. Eskatu edo ikusteko deitu: 670 825 753.

LESBIANA EDO LESBIANAGAIEN BILA

60 urtetik gorako lesbiana eta lesbianagai bila. Edadeko andrea zara eta aisialdirako edota militantziarako espazio ez-hetero baten bila zabiz? Deitu edo bialdu mezua 608 062 592 zenbakira.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Porrotx, Marimotots, Pupu eta Loreren Zerua lapurtu dute ikuskizunerako.

Garbiñe Uriarte (Dima)
 Amaia Espinosa (Artea)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Pulcinella Txio-Txinela antzezlanerako.

Alasne Artetxe (Artea)
 Edorta Alonso (Zeanuri)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara.
 BEGITUk 23 urte eta ehundaka lagun.



94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

Dia %

PEDRO AUTOZERBITZU

Sabino Arana, 35 48.140 Igorre Tel. 94 631 15 26

KIRRU ILEAPAINDEGIA

ROSANA eta ROBER

SABINO ARANA 38 IGORRE

Tlf. 94 631 92 00

BEGITU

Ipini zure iragarkia Begitun

649 979 115

inigoirua@begitu.eus

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Salmentan zein alokairuan

Lurak (erakitzeko, landak, basak...)

Etebiziak (jauak, baserriak, etxeak...)

Gorabeak

Lokal komertzialak

Pabiloiak...

Balazteak

Erakunde berriak erakitzeko

Erakunde

Arkitekto-proiektuak

Berri diseinua

CEE eta IIE-ak

Hirigintza ahoikularitza

Negoziak irekitzeko kudeaketa

arratia

INMOBILIARIA

Kili-Kili

Amigo eta Puntuturra

Lahendakort Agire 10 - IGORRE (Bizkaia)

Tel: 94 473 43 81

BIXER TABERNA

Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho

pintura lanak

Sabino Arana, 3. 3a

Igorre 48140 Bizkaia

94-673-70-87

609-79-40-54

Graduazioak

Ikusmen terapia

Ikusmen gibusua

Begiko tentsioa

Lentillen adaptazioa

Kiroletarako betaurrekoak

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)

94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

ASESORIA GORBEIALDE

Juridikoa - Fiskala - Landkoa - Kontularitza

Askatasun 28, 1B 48143 Areatza

Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82

E-posta: gorbelaide@gorbelaide.com



IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN

Informazinoa: **649 979 115**
eta inigoirua@begitu.eus





INAUTERIAK 2026

OTSAILAK 13

- 15:30 ESKOLAKO UMEEN JAIALDIA
FRONTOIAN
- 16:30 GURASO ELKARTEAREN
ESKUTIK MERIENDA
- 17:00 ALT XORRAREN BILA
- 18:00 MOZORRO DESFILEA



plAzaTi PoTeOaM aLdAMiN TaBeRnAraINo>>15:00< --

- bAbajAMA eta postReAn "BilMGoa" -->17:30< . PRIMO bAYo DISKO FESTA :)

LAMINO E G U N E

17€ 28€ 32€
UnE NoLiAk LaMiNoKideEa BeStEaH

***IZENA eMoTEa:
OtSaILAk 6-7 // 18:30-19:30
LaMiNo sEdEAn "AgEdiTanEan"

